

Goñerrin aurkitutako testuak (IV)

FRANTZISKO ONDARRA

Aldizkari honetan¹ argitaratuak ditugu Goñerrin aurkitutako 16 testu. Beste lau ematen ditugu orain, haikekin eta beste askorekin bilduma bat osatzen dutenak, bertan 5. saila² egiten dutela.

TESTUTAK

Lau testuok predikuak dira, eta bakoitzak 6 orrialde betetzen ditu. Azkeneko biak paper multzo bakar batean daude eta hari zuriz josiak. Testuak guk zenbatuak dira. Batez-beste 210 mm. luze eta 150 zabal dira multzoak. Ur marka hauek ikusten ditugu: 1.- I BRUN / BEARN; hiru zirkulu bata bestearen gainean, goikoaren barruan gurutze bat eta gainean beste bat, zirkuluen ezker eta eskuin esku antzeko marrazkiak eta FIN 1764; 2.- I MARGIAQ EMS / SOULE; hiru zirkulu aurrekoan bezala eta FIN 1761; 3 eta 4.- I CAS SOI (?) / BEARN; hiru zirkulu aurrekoetan legez eta FIN 1768. Erlilio gaiak ukitzen dituzte.

NORK, NON eta NOIZ

Nor den egilea ez dakigu. Esan dezakegu ordea, bildumako laugarren saila³ idatzi zuenak bere eskuetan izan zituela hauek ere, *irugui* –ik. 4, 2, 3– hitza berak idatzia bait da, esku eta tinta berbera ageri direla erantsia izan den berba horretan eta goian aipatu laugarren sailean. Euskara gaizkara darabil, ergatiboa menderatzen ez duela, aditz eta deklinabide eta lexikoan zalantzak dituela, sintaxian oztopatzen dela, etab.

Non izan zen idatzia ere ezin dugu esan.

Noiz. Uste dugu XVIII. mendekoa dela. Hori esateko, kontuan hartzen ditugula ur marka, noizean behin ageri den zedila, etab.

1. ONDARRA, Frantzisko 1989. «Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)». *FLV* XXI, 53 (1989), 97-144; idem 1990. «Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)». *FLV* XXII, 55 (1990), 73-121; idem 1991. «Goñerrin aurkitutako beste sei testu». *FLV* XXIII, 57 (1991), 131-168.

2. Ik. ONDARRA, Frantzisko 1981. «Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan». *Euskeria* XXVI (1981-1), 349-365. Ik. 353. or.

3. Ik. 2. oharreko lanaren 353. or.

HIZKUNTZAREN ARLOAN

Grafia

Bokaletan, *v*- idatzi ohi du hitz hasieran, *uzi* aditzean *u*- bakanen bat aurkitu dugula.

Kontsonanteetan, *gue gui*-ren ordez *ge gi* bakanen bat ageri da; *k* edo *ku* adierazteko *qu* noizean behin; *ts* eta *tz* gutxi-gutxitan; *si* eta *sy ixa* adierazteko aldian behin; *ti* eta *tt* bakanen bat *t* bustiaren (?) ordez; zedilaren bat ikusten da; zenbait laburpen, *X(p)to* ‘Christo’ ia beti; bokal gainean marratxo bat *n* adierazteko; lerro bukaeran hitz partitzean noiz-behinka marra bikoitza (=); maiz samar puntu ondoko berba minuskulaz hasten da⁴.

Fonetika

Bokaletan, ez dugu ikusi ia inolako gertakaririk, salbuespen gisa ondoko hauek aipa ditzakegula: 1.– beti «Diabrua»; 2.– lehenbiziko testuan ia beti «biar» ‘behar’, besteetan ia beti «bear»; 3.– «errayetan» eta «oyec».

Kontsonanteetan, *-s* ageri da hitz amaian eta *ez -z*; eta *-zt-* maizago *-st-* baino.

Morfologia

Deklinabidea. Ergatibo plurala *-ak* eta *-ek* morfemez baliaturik moldatzen da, *-ak* maizago ikusten dela 1. testuan *-ek* baino, eta besteetan alderantziz; datibo plurala *-eri* da; soziatiboa *-kin* da 1. an ia beti, besteetan *-ki*, salbuespenen bat ikusten dela; destinatiboa *-(r)endako* (eta *-(r)enzat*) da; inesiboan honako hauek ikusi ditugu: *gañin* 1, 1, 2, *oianin* 1, 2, 2, *batin*, 1, 5, 2, vda *verrin* 3, 1, 3; *viozin* 1, 4, 4 eta *echin* 4, 3, 1.

Erakusleak. *Au* (eta *gau* bakanen bat), *onec*, *ontan* (eta *onetan* bakanen bat), *ebek*; *ori*, *orrek*, *ortan*, *oiek*; *berorren*; *ura*, *arrek* (eta *ark-en* bat), *artan*, *aiek*.

Izenordain pertsonalak. *Ni*, *nik*, *neronek*, *niri*, *nitas*, *ene*, *nere*; *zu*, *zuk*, *zure*, *zeure*, *zeurekin*, (orrengana); *zuek*, *zeuren*; *gu*, *guk*, *gure*, *geuren*.

Aditza. Iraganaldian gehienetan amierako *-n* galdu egiten da 1. testuan, besteetan beti edo ia beti; behin aurkitu dugu *-go* geroaldia tajutzeko *-n* bukaeradun aditzetan: «*esango*» 2, 3, 1; *digu gaitu-ren* ordez, *du dit-en* partezez, etab.

4. Testuetan zehar zenbait azentu marka ipini ditugu. Ez ditugu ordea ikusi ditugun denak ezarri, benetan azentu marka ote ziren seguru ez ginelako. Honako hauak lirateke: *artuzuènean* 2, 1, 2; *seme onèqui* 2, 1, 3; *gueiàgo* 2, 2, 2; *eguinbàdu* 2, 4, 2; *vr onèqui* 3, 1, 3; *Abelen odòlac* 2, 4, 3.

Sintaxia

Ez daki ergatibo marka ongi erabiltzen, falta delarik edo sobera dagoe-larik; ez du beti *-n* atzizkia eransten zehar galderetan; noiz-behinka geniti-boa objetuaren ordez ipintzen du: «Daviden arrapazera» 2, 3, 3; erlatibozko perpausak moldatzeko *bait*, *nor*, *zein* eta *-n* atzizkiaz baliatzen da; kon-paratibozkoak *ezi*-rekin egiten ditu, *baino* erabili beharrean: «lenago il, *ezi* berris becatu eguitea» 3, 6, 3; «gueiago naidu ildaien vere semea *ezi* mutilla» 2, 2, 1.

Hiztegia

Larramendirekin zer ikusirik, berak asmatuak direlako edo bere hiz-tegian aurki daitezkeelako, duten hitzak ipintzen ditugu hemen, beroien berri zehatzagoa *Hiztegia* atalean ematen dela: A. apaingai; B. barzulo, bestiritudi; D. desarautu; E. eginde, erranzukida, eskumakil; G. ginbalet, gisagaiso, goaia, gogaberatu, gozaldi, gozande; L. lagunkida, loteki, lukura-ri; U. ugemarra, urrunde, urrundetu; Z. zeagigurte.

Adizkitegia

Ageri diren adizkiak badira euskalkietan, baina ez daki ongi ipintzen eta askotan bat ezabatu eta beste bat ezartzen du haren ordez. Euskalki batetik baino gehiagotatik hartzen ditu. Adibidez, ikusten dugu *balezo*, baino *dio-zagun*, azkeneko hau Lizarragak *dezogun* esango lukeela; bizkaierazko *gen-gozañ* darabil behin, gero *geunden* bihurtua, eta Larramendiren hiztegitik⁵ hartua izan dena noski. Goian ezan bezala – ik. *Morfologia-* NOR-NORI-NORK erabiltzen du behin baino gehiagotan NOR-NORK erabili beharrean eta alderantziz, etab.

Gure lana

Hitz hasieran ageri den V- grafema *U* bilakaturik idazten dugu bokala denean, eta Y- grafema *I* bihurturik.

Latinezko okerrak zuzendurik ematen ditugu, orrialde peko ohar bat-ean jartzen ditugula aldaketa guztiak. Latinezko pasarteak azpimarratu egiten ditugu, egileak ez badu ere hori egin.

Laburpenak deslaburtu egiten ditugu eta guk sartutako osagaiak kor-txete barruan ipintzen ditugu. Ez dugu hori egiten *X(p)to* hitzarekin, hau beti *Christo* egiten dugula, egin dugunaren berri eman gabe. Latinezkoak ere deslaburtu, baina kortexete barruan ipini gabe guk sartutako hizkiak.

Ergatiboa gaizki dagoenean, zuzendu egin dugu eta orrialde peko oha-rrean eman dugu horren berri. Hori bera esan behar da beste zenbait okerrez, baina ez ditugu zuzendu oker guztiak, jakina.

5. LARRAMENDI, Manuel de 1853. *Diccionario Trilingüe*. Ik. Estar.

Hiztegi sarrera-buruetan zenbait aldiz eskuidatziko grafia gordetzen dugu: «merex», «merxe»⁴, etab., baina horrek ez du esan nahi *ixa*-ren aurrean gaudela. Bestalde, ez ditugu hitz guztiak ipini hiztegian, bai ordea adizki denak adizkitegian.

Bukatzeko, esan behar dugu autoreak euskara eskasa eskaintzen badigu ere, interesgarria dela bere lana, erabiltzen dituen osagaiak ez bait dira berak asmatuak, hizkuntzatik hartuak baizik. Eransti behar dugu 1. testuan zuzenketa gutxi aurkitzen direla, besteetan asko, eta beharbada bigarren edo hirugarren esku batek eginak ere badirela.

Laburdurak hauek dira: a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, d. determinatzalea, i. izena, ik. ikus, io. izendordaina, j. juntagailua.

TESTUAK

1. TESTUA

Abiit¹ Jesus trans mare Galilaeae quod est Tiberiadis. Joan. 6.

Christo² gure redemptoreac asi zuanean vere predicacioa: aguiz gaizqui tratatuciote Judeaco jendeac, eta guti estimazenzitusten gure redemptorearen favorioac. baña gure erredeemptoreac³ castigatuciote gucieri castigo aundibatequin. cer castigo eman ciote bada? joanze erritic oianetara eta uzizuen erri vra Jangoicoric bague «*Abiit Jesus*»: au da Jaunac castigoa egun zuena jende aiequin. eta au veraau eguitendu gurequin ofendizendiogunean gure gaizquitasunequin. oraibada icusico dugu cer castigo ain aundia dena au.

Jangoicoaren castigo gucietatic aundieta da vztea vecataria Jangoicoaren escutic. cergatic Jangoico bague cer eguiñendu guizonac? Teologoec eracustendigute, edocein becatuc iriquizenduela arimaren ataria gueiago becatu eguiteco, eta orla vecatu mortalebat eguitenduenac castidadearen contra, iriquizendu arimaren ataria gueiago vecatu eguiteco castidadearen contra, eta orla guertazenda, orlacoec veguirazen diotela cuidado aundiarequin emacumeari, icusten dutenean, eta esatendizquitotela itz gaistoac⁴ arrequin egotendirenean; eta au guciaau da cergatic Jangoicoa⁵ vrrundetuda vere viozetic: «*Abiit Jesus*» eta orla vztendu Jangoicoac vecatariari eguidenezala verze becatu mortale bat, eta onequin castigazendu lembichico becatu vra. cergatic becatua⁶ ezta ongi castigazen, edo ezta castigazen merexiduen bezala munduko necesidade guiciequin⁷ afrontuequin, eta tormentuequin: eta ain guti infernuco tormentu guciequin castigazenda ongi becatu mortalebat solo Jangoicoaren vrrundea, edo ausenciarequin, eta eguitearequin becatu mortalebat verzearen ganin castigazenda ongi becatua verze becatuarequin cergatic⁸ orida Jangoicoaren castigo aundieta «*Abiit Jesus*».

Ongui ezautuzuen Erregue Davidec gauzagau, bada zelaric munduko Erreguea, ain abrasa, eta ain poderotsoa, arquizen ze indar ascoequin ongi pasazeco vere vicia, eta orla esatencion⁹ Jangoicoari viozgucis «*Ne declines in ira a servo¹⁰ tuo¹¹*» Jauna eztuzu cer apartatu ene aldetic: cergatic ori izanenda enezat¹² castigo aundia: eta S[a]n Agustinec declarazendu lecu au adiarastendigu laric certan dagon¹³ Jangoicoaren ira edo castigoau. «*Ira Det est declinare*» esatendu S[a]n Agustinec ira dela vztea arima bat, eta aparta-

1. Ezker aldeko goiko zokoan 1822 dio.

2. *Xpto* eta *Xto* idatzi ohi du. Hemen *Xpto*.

3. Eskuidatzian (E) «erredeemptore», ergatibo marka gabe.

4. E-an «gaistos».

5. E-an «Jangoicoac».

6. E-an «becatuac».

7. Hemen «guiciequin», baina 9 bat hitz beherago «guciequin».

8. E-an «cergatic».

9. E-an «esazen».

10. E-an «serbo». Latinezko hitzok zuzendu ditugu: «iluminat» 1, 2, 2; «pennam» 1, 3, 2; «precedentis» 1, 3, 2.

11. Bazterrean: *Psal. 26 c. n. 9.*

12. E-an «enenzat».

13. E-an «dago».

zea. «*Abiit Jesus*» bada Jangoicoa¹⁴ apartazen bada guretic cer eguiñendute gure arimac? nora joanendire? norc izanendu misericordia guretas Jangoicoac vztenbadigu? cerda bada eguitea becatu mortale bat, baicic señale fixoa eztogola Jangoicoa zeurequin? cer da costumbre gaisto daucazun ori [2] eguiteco luxuriasco becatu ichusi oie, baicican joandela Jangoicoa zure arimatic, eta sartudela Diabrua¹⁵? cerda costumbre gaisto ori murmurazeco proximoaren contra baicican Jangoicoac vziduela zure arima? «*Abiit Jesus*»

Cer eguiñendu guizonac oianin artean sarzenbada iguzquia, eta gueldizenzbada arguiric bague? eroricoda milla aldis, min artucodu, eta guero ere eroricoda otsoen escuetan edo, azcazaletan, ceñec quenducodiote vicia. Cer eguinendu gure arimac¹⁶ Jangoico bague cein baita¹⁷ gure arimaren arguia eta vicia? certan paratucoda? organic S[a]n Juanec lembisico gauza esanzuena ze Jangoicoa zela argui eguiascoa, eta arimaren iguzguia «*Erat lux vera quae illuminat omnem hominem venientem in hunc mundum*» arguonequin gauza guciac ongi atracodire; gure obra guciac onac hizanendire; baña arguiau galzen badugu gauza guciac gaizqui atracodire, eta gure obraguciak macurrac hizanendire. Jangoicoac verac eracustendigu au «*Ego sum lux mundi, qui sequitur me non ambulat in tenebris*»¹⁸ ni¹⁹ naiz zeruko, eta lurreco arguia: arimaren eta gorpuzaren iguzquia, seguizendidatenac ongi eguinen dituste gauzaguciak²⁰ eta joanendire zerura.

Baña galzendutenac argui soberanuau cer eguiin beardute? eta nola atracodire aien gauzac illumabetan. icusagun nola: ala nola iguzquiac arguizendu mundugucia, onla Jangoicoac arguizenditu arimac. oraibada. faltazendenean²¹ iguzquia; acabazenda gure vicia; obrac cesazendire; faltazendue-nean iguzquia aumentazendire illuntasunac, ignorancia, eta veldurtasuna²² eguitenda audiagoa, eta peligroac dire audiagoac. au verau guertazenda gure arimeequin faltazendenean iguzqui soberano vra²³ cein baita gure Jaun soberanoa gure becatuequin. gure arima argui soberanoaubague betidago veldurtasun audiarequin, gure vorondatea²⁴ epelcenda, entendamentua²⁵ vetezanda pensamentu²⁶ gaistos, veti dago pensazen munduco gauzeetan, eta nola eguinbearditu vere gusto guciac, eta esateco beinguas guizon gucia dabil ereloxu desarautuabezala. eta infernuco eta lurreco gaiz gucietara obligazenda; cergatic becatuac quenzendu gure arimeetaic Jangoicoaren gracia, eta sarzenda Diabrua²⁷. Zer hizanenda erria Justiciaric bague? izanen ezta herria baicican lapurreen²⁸ echea. bada orla gueldizenda gure arima

14. E-an «Jangoicoac».

15. E-an «Diabruac».

16. E-an «arima».

17. E-an *cein* (sic -ñ) *baita* erre pikaturik.

18. Bazterrean: *Joan. 8. nu. 12.*

19. E-an «nic».

20. E-an «-gucia», plural marka gabe.

21. E-an «-duenean» hemen eta 8 bat hitz beherago, baina «-denean» beste 18 bat hitz beheitago.

22. E-an «veldurtasunac».

23. E-an *arc*.

24. E-an «vorondateac».

25. E-an «entendamentuac».

26. E-an «pensamentus».

27. E-an «Diabruac».

28. E-an «lapurreen», *lapur* lerro amaian dagoela.

argui soberanu aubague, ezta Jangoicoaren echea baicican diabruarena. auda Jauna desdicha gucietatic audienna. «*Abijt Jesus*» [3] A Jaunac eta ceiñ²⁹ guti estimazenditugun Jangoicoaren favorioac, bada Jangoicoac vere ontasun infinitoengatic ematendigu aimberze dembora eguiteco gure beccatuen penitencia, eta guc entendamenturic bague galzendugu dembora au eta eguiten-ditugu³⁰ ainberze beccatu zeñequin galzendugu Jangoicoaren gracia? cer eguitenduzu mutil gastea ibilzen aizenean³¹ pensamentu gaisto oiequin castidadearen contra? cer atrazenduzu tocamentu desonestuoiequi? cer irabastenduzu joatenaizenean onlaco emacume gaistoen gana luxuriasco becatuac eguiteco aiequin? cer eguinbearduzu: galzenduzu argui miragarri vra zure vecatuequin; gueldizenda zure arima illumabetan; sarzenda Diabrua³² zure ariman, eta Diabruarequin cer eguin bearduzu baicican beccatua. ceñequin vsyazendu andic Jangoicoa. «*Abijt Jesus*» eta gusto gaistobatengatic, nai duzu galdu Jangoicoaren gracia? naiduzu sardezaiela Diabrua³³ zure ariman eta botatu andic gure Jaun soberanoa? gusto gaisto bereala pasazendenbatengatic naiduzu galdu zure arima gaisio betiraco, eta botatu infernuco sugarretara? a ceiñguti considerazendugun gure arimac³⁴ gueiago baliaduela mundu guciac baño.

Baña guazen alzinago eta icusico dugu Jangoicoaren ausencia dela castigo gucietatic audienna «*Abijt Jesus*» essandudan³⁵ gucia da arimabat Jangoicobague eta oraño eztutessan³⁶ gucia, cergatic badago oraño cer essan; baña solo essanendut Moyseseri guertatucizaiona³⁷, vere jendearequin. Cegolaric bada Moysses oianeanean³⁸ minzazen Jangoicoarequin errecebizeco leguea vere jendearenzat: erritarrac eguiñzuten ceaguigurteco, edo idolatriasco becatubat, cergatic eguiñzuten vrrezco³⁹ Jangoicobat eta vrrezco Jangoico oni adoratuciote Jangoicoaren vorondatearen contra eta aguinduzizqiote ofrendac eta sacrificioac, eta otsaundiequin eroac bezala essatenzute even dire gure Jangoicoac ceñec librazendigute gaiz gucietatic. Cer gueiago esanen luque erobatec? infernuguciac⁴⁰ pensatuco luque aimberze? O guizonen ingratitudet! o entendamentuaren illuntasuna! Cer eguiñen eztu, edo cer esanen eztu, atrevizendenac Jangoicoarequin? Ucatucodu Jangoicoari, guti da ori cergatic vecatu mortale batequi, esaten ezpadu ere, eguitendu: eta orla ezta aguiz Jangoicoac⁴¹ gastigadezala vecataria verze becatuequin, cergatic ori da mere-xizenduen castigoa eta vzidezala veren escutic. «*Abijt Jesus*»

Icusagun bada cer eguiñzuen Moysesec guizon evequin: Eguines gueros ydolatriasco vecatu vra aiñ ichusia; Jauchize [4] Moyses⁴² menditic. eta ain

29. E-an «*ciñ*».

30. E-an «*-ditugun*».

31. E-an «*aizenea*», eta beherago «*aizenean*».

32. E-an «*Diabruac*».

33. E-an «*Diabruac*».

34. E-an «*arima*».

35. E-an «*-dudun*».

36. E-an «*eztuessan*».

37. E-an *zaiona*.

38. E-an lehenbizi «*oianin*».

39. *vrrezco* eta *Jangoicobat* artean (*cecorrabat*): hola parentesian dago E-an.

40. E-an «*-gucia*».

41. E-an «*Jangoicoc*».

42. E-an «*Moysesec*».

fite nola icusizuen Jangoico berri vra: nori gende guciac⁴³ emacion bedeicacioa eta eguinzziquion⁴⁴ ofrendac. bereala manatucioten autsac eguidezatela⁴⁵ artatic, eta autsaiec emanizquiole edateco vrarequin. Cer naidu adiarastu onlaco eguidearequin? cer? jende arrec⁴⁶ eguinzzue heregiasco vecatu aundia eta icusizuean Moises sanduac, esanciote gucieri nai ducie idoloa, naiducie Jangoico berria, bada arzacie eta edanzacie, eta sarzacie zeuren errayetan; cergic beccatuau gaztigatu bearda berze becatuarequin. onlaco gaizquitasunac, gaztigatubeardire, verze gaizquitasuneequin. eta orla naibaditucie Jangoico berriac edanzazie, parazazie viozeta eta eguinzzacie naiditucionac; eta vzciote aitaricbague.

Modu ontan bada gaztigazendu Jangoicoac becataria becatu mortalebat eguitenduean: eta orla eguitenduenac becatumortalebat castidadearen contra, vereala izanenditu vere gogoan verze pensamentu gaisto bazuec castidadearen contra, eta nola guc egui eztezaquegun gauzabat ongi Jangoicoac lagunzen ezzpadigu, berala becatu aguiz eguiten ditugu⁴⁷. cergic ori da Jangoicoaren castigoa gure beccatuengatic. eta orla Theologo guciec essaten digute beccatubat dela verze beccatuen caztigoa «*Sequens peccatum esse penam praecedentis*»

Cer eguitenduzu bada emacume desonestua eguiten duzunean beccatu mortalebat castidadearen contra? eztuzu iminzen zure vorondatea, zure vioza, eta zure gogoa gusto gaisto oietan? eztuzu estimazen gueiago arzenduzun gusto, ezi ez Jangoicoa? cerda oribada baicican despreciatu Jangoicoa eta estimatu munduko deleiteac? eztaquizu becatu mortalarequin despreciazenduzula Jangoicoa, eta arzenduzula⁴⁸ Jangoicoarenengatic zure gusto gaistoa? bai Jauna nola bada eguitenditzu⁴⁹ aimberze beccatu gure Jaun soberanoaren contra? nola parazenditzu zure vorondatea zure vioza, eta zure gogo gucia munduko gauzeetan? nola⁵⁰ quenzen dizquiozu gauza evec gure Jaun soberanoari? nola galzenduzu zure arima probechuric bague vecatu ichusi oiequin?

Nic esanendut orai: lembisico vecatu mortalarequin galdu baizue Jangoicoaren gracia, sartuze Diabrua⁵¹ vere viozin, eta Jangoicoa⁵² joanze andic «*Abijt Jesus*» bada arimabatec⁵³ Jangoicoabague, eta viozin diabruarequin zer eguiñendu baizic, beccatuac, arima sandubatec⁵⁴ asco eguiñendu quenzenbaditu Diabruaren tentacioac. [5] nola quenduco ditu onlaco tentacioac diabruarequin dagonac? onlacoec⁵⁵ tentacio gucietan eroricodire, eta lecuguetan eginendituste vecatuac Jangoicoaren contra cergicori da Jan-

43. E-an «gucia».

44. Lehenbizi «eguinzziquion».

45. Espero dena «-cezazquitela» edo da, batuan zitzatela.

46. E-an *vra*.

47. E-an «ditugun».

48. E-an «dulzula».

49. E-an «-dituzun», beherago «-dituzun» berriz ere eta beherago «dizquiozun», baina 7 bat berba beheitiago «-duzu».

50. E-an *nola* errepikaturik.

51. E-an «Diabruac».

52. E-an «Jangoicoac».

53. E-an «arimabat».

54. E-an «sandubat».

55. Espero dena «onlacoac» da.

goicoaren castigoa, eta orla castigazendu beccatu mortalebat, verze becatu mortale batequin. Eabada Jaunac oraño badugu dembora izulceco gure vioza gure Jaunarengana; gure Jaun soberanoac⁵⁶ dauzqui besoac⁵⁷ zabalac⁵⁸ errecebizeco⁵⁹ becatari guciac⁶⁰, baña eguinbeardugu gure aldetic eguinala salbazeco gure arima gaisoa, eguin bearditugu gauza guciac ongi, eta ez juntatu lagun gaistoequin, cergatic evec gaistoagoac dire diabru guciac baño. eta acabazendut exemplu onequin.

Erribatean emacumebatec eguitencituen aguiz becatu castidadearen contra mutilbatequin norequin ezcondu naizue: baña mutil vra⁶¹ ezconduze verze emacumearequin, cumplitusgueros vere gozandeac lembisicoarequin (orai ere aguiz aldis guertazenda au verau) baña lembisico emacumeac arquitzionean carrican guizon oni combidaducion⁶² passazera arrasaldebat campoco echebatin. guizonac emancion itza juateco, eta bien artean señalatzute arrasaldea eta lecua. arrasalde ontan bada juntatu zire bioc eta joanzire echeartara; an pasatuzire⁶³ arrasalde gucia alegria audiarequin. eta guero emacumeac esancio guizon oni. badaquizu aguiz aldis eguiditugula aragisco beccatuac, eta orla oraiere cumplitubeardugu gure gustua, atoz enequin guazera; guizona⁶⁴ joan ze arrequin vere gusto gaisto cumplizera, eta zegolaric emacumearequin, emacumeac coleras veteric cergatic ezcondubaize berzearequin, sartucio guizon oni sabeletic canibeta bat, eta ilzuen vecatu artan verean.

Gero emacumea⁶⁵ joanze vere echera sosegu audiarequin: baña guizonen echetic, nola ez zen aguiri, joanzire emacume onen echera galde eguitera non zegon guizon vra, eta emacumeac esancion⁶⁶ onlaco echean zegola. juanzire arara eta arquituziote guazen zegola, eta illic zegola. bereala arrapatuциote emacumeari, eta galdetuciote, norc ilzuen guizon vra. eta emacumeac atrevencia audiarequin esanció⁶⁷. neronec ildut cergatic emanesgueros itza ezconzeco enequin, ezconduda berzearequin. baña provecho on daiola [6] cergatic infernuco sugarretandago. orduan eramanciote garzelera eta atrazaio⁶⁸ sentencia vicia galzeco vrcabean. Confesoreac esancio, Andrea ilzea necesario da, eta onla obrena hizanen da confesacea vecatu guciac, cergatic confesio onarequin barcazenzaizquigu gure becatu guciac. Andreiac⁶⁹ esancio confesoreari Jauna⁷⁰ debalde elduda, cergatic ni⁷¹ confesatubague illen naiz. cergatic bada? cergatic guizon gaizto vra⁷² ene vstes infernuco sugarre-

- 56. E-an «soberanoa».
- 57. E-an «becoac».
- 58. «zabalic» espero da.
- 59. E-an «erecebizeco».
- 60. E-an «-gucia».
- 61. E-an «mutilarrec».
- 62. Hola eta ez «combidatu».
- 63. «pasatuzute» edo espero da.
- 64. E-an «guizonac».
- 65. E-an «emacumeac».
- 66. «zien» espero da.
- 67. «-cie» espero da.
- 68. «-cizaio» espero da.
- 69. Ez «andreas».
- 70. E-an «Jaun».
- 71. E-an «nic».
- 72. E-an *arréc*.

tan dago: baña neronec icusibiardut nola dagon lecu artan, orrequin sosegatuconai. eta orla confesatu bague ilbeardut joateco infernuco sugarretara arren icustera.

Adituducie orlacoric? non arquitucoda onlaco erotasuna? A Jaunac. Jangoicoac vztenbadigu veren⁷³ escutic au eta gueiago eguiñendugu. guzenbada⁷⁴ gucioc gure Jaun soberanoarengana eta esandiozagun humiltasunarequin. O ene redemptorea badaquit⁷⁵ ene becatuac, eta ene gaizquitasunac audiad direla, ceñequin apartatunaiz zeuren amistanzatic; eta considerazendut meregizen⁷⁶ ditiudala infernuco tormentuguciac, eta evec ere gutidirela castigazeco ene vecatuac merexizendituen bezala. cergatic eroabezala eguitea gatic ene gusto gaistoac ofenditudut aimberze aldis zure ontasun infinitoa. eta entendamenturic bague paratudut ene⁷⁷ vorondatea, ene vioza, eta enarima gicia munduco gauzeetan eta apartatunaiz zure aldetic. O nere Jesus maitea, zer izanenda nitas zuc vztenbadidazu? nora joanenda ene arima gaisoa? norc quenducodizquida ene araguiaren inclinacio gaisto evec? a nere Jauna solo gogoan iduqui cemba aldis votatududan⁷⁸ ene viozetic veroren ontasun infinitoa ene gusto gaistoengatic, icarazenda ene vioza; eta emendenida izerdiaundibatec⁷⁹.

O ene viozeco prenda maitagarria! nola vzidut ene vioceco⁸⁰ vicia? nola galdu dudut ene arimaren contentua. S[a]n Pedro Apostoloac zure veguirazearequin; bereala eguin zuen vere vecatuen penitencia eguiascobat. bada begui soberanu oyec eztute orai podorea eguiteco enequin orbat? Galdu dute vere virtutea? eztire miragarriac len bezala? bai. certan otedagobada? o nere Jaun soberanoa ene viozean dago, cergatic munduco gauzeequi epelduda, eta gogortuda arria bezala eabada Jauna izulizazquidazu⁸¹ enegana zure vegui misericordiasco oie, verachazeco ene vioza S[a]n Pedrorena bezala, negar eguiteco enebecatuengatic, eta considerazeco ene vici gician cemba aldis paratu dudan⁸² veroren ontasun infinitoa gruzean enebecatuequin; emen dauzquizu ene memoria, entendamentua, eta vorondatea, verorrenzat dire eta orla escazendiot humiltasun audiarequi ezcaizazula vzi vecatuetan eror-zera; eta zure graciarequin proponizendiot lenago padezitu munduco deshondra⁸³ guciac ezi ez becatubat eguin. misericordia Jauna, &. ad quam nos &.

73. «vere» espero da.

74. E-an «juazen».

75. E-an «badaqut».

76. E-an 11 bat hitz beherago «merexizen».

77. E-an «vene».

78. E-an «-dut».

79. E-an «-ba» (sic, amaierako *-t* gabe).

80. E-an «vioceco», zedillarekin.

81. Lehenbizi «zazquizu» idatzi du.

82. E-an «dut».

83. E-an «desodra».

122v

Abiit Jesus

Xiph qui se uide
gauquin thalata
con quea ~~zidat~~ foranen
castigatioate quicierzi cari
ciste bala? joanre enre
Tangoicozie bague,, Abiit
zuena yende aequin.
ofendizendio queanean que
iunco dupu cex castigo ain au

castigo quietatic ~~audienda~~ da vrtea vacata
ecutio. ergatic Tangoico bague exequinende
Seologoe exacustendique, edo cinc beccatu*ri* queuenuelas
azimazien ataria queago beccatu*ri* epuketoz eta olla ieca
tumortalebat equitonduenac castidadaxen contra, inque
zen du azimazien ataria queago vacatu*ri* epuketoz castida
omaci deaxen contra, eta olla quietazenda, oxla coec vegetazien
meaz diotela cuiido audiariquein, ius tenderean, eta esatendizque
tela itzgaistos arraquin egotendizenean; eta au gaudiari da
cegatic Tangoicoac vrteaztenda vere inozetic;,, Abiit Jesus,
eta olla vrtendu Tangoicoac vacatariaz iquinderal a vex
ze becatu mortale bat, eta onequin castigazendu lembichico
beccatu iria. ergatic becatu*ri* eta ongi castigazien, edo erta
castigazien mexividuenbala munduko necridade quicierum
afrontuequin, eta tormentuequin: eta ain guti inforriu*co*
tormentu quicierum castigazienia ongi becatu mortalebat
vlo Tangoicoazien vixunda*ri*, edo avenciazquin, eta epakiteare
quin becatu mortalebat, verzearen qanin castigazenda ongi
beccatu vere becatu*ri* aequin. ergatic olla Tangoicoazien casti
e ~~audienda~~, Abiit Jesus)). Onqui erautuzuen Laxu*ie* Davi
dec gauza pao, bada Zelanic munduko lirapeua, ain abxava, eta
ain sodezotsoa, arquien ~~re~~ mdax asdequin ongi parareco
verl vicia, eta olla esazencion Tango*co*, ^{co} inozetic, Reclines Pal. 26
in ira exabto, Jauna ertuzu cex apartatu ene aldetik: cesta a.n. 9.
Ic ozi iranenda onenzat castigo aurioia: eta Sⁿ Agustinec
declarazendu leci aiu adixa*re* tauric centan dago Tangoicoazien ira edo castigoau, Ira Dei e Declinare, esakendu
Sⁿ Agustinec, Tangoicoazien ~~re~~ dela vrtea azimabat, eta
apartarera. Abiit Jesus, bada Tangoicoac apartazien bada
ozetik cex equinendule que azimac? nona joanendiz*re*?
nona iranenda mirexicodia queetas Tangoicoac vrtenba ^{ronale}
digu? cexda bada epuketza becatu*ri* mortale bat, bascic, etxagolatinaa
Tangoicoa ~~re~~ ^{ezagutin?} cexda costumbre gaisto daucazun,
ori

argutu bideratu. ^o ocamanciole
parralera etan. ^o ocamanciole
Ireneak esan da. ^o ocamanciole
da konfesioa. ^o ocamanciole
zorratu. ^o ocamanciole
xeani haur da. ^o ocamanciole
nair. ^o ocamanciole
forruco mis. ^o ocamanciole
dagor leku. ^o ocamanciole
bagurra. ^o ocamanciole
nico supaxetara arrer iuste.
oxlaconic? non arguitu coda on laco oxstaruna?
zocoac urtenbadigu vearen ecuatic aue tauriago
equitenduq. ^o ocamanciole
gana eta eandioragun humiltatuna reguin. Oene zidemo lo
rea badagut ore becatuaz, eta ene gaixquitarunac aundiak dire
la, ^o ocamanciole
de xarrenbut mexegizent dituvala infinitua tomentuqueua, eta
eret ere quotidien la castigazko ene recatua melexizenditzen
berala. ^o ocamanciole
oponditut alborzealdia oxzune ontaren infinitoa, eta on
tendamentuiz bagne, ^o ocamanciole
enaxima guicia munduko gauretan eta apartatunaz, zure alde
tic. O nere Iesus maita, ^o ocamanciole
nora joanonda ene anima gaisoa, ^o ocamanciole
araguiazen inclinacio gaisto eret? o nere Iauria solo gogor
idegi combat aldia rotatudut ene oiorzetic vorozzen ontarun
infinitoa ene gusto gaistoengaptic, icaxazenda ene viorza; eta em
atendida izexodiauntiba.

O nere vioreco prenda maitagaxia! nola
zidut ene vioreco vicia? nola galdu dudut ene animazien conten
tua. Sñ Pedro Apostoloak zure reguizare reguin; beraria equ
nzu ene recatuen penitencia equas cobat. Basa beza, beraria
yec erxtute orai padoreta equiteko ene reguin orbat? Galdu dute zea
zistuket? erxtze mizagakai ac lenberala? basa intza otxizgorria?
o nere Iauria soberanoa ene ziorcan dago, ergazti munduko os
zequin exelduta, eta gogortuza arada berala. Ieabava Iauria
izulizanquiztu erregana zure regu misericordiaro oile, maa
chareko ene viorza sñ Pedrorena berala, negar equiteko ene becarri
engabik, eta consideratzeko ene vici guian combatatutu paxet
dit vorozzen ontaren infinitoa, guruzan enebiatuzquieri: emon
dauquiriz ene memoria, entenda mentua, eta vorondatea, u
oxzen zat dixe eta oxla escazendiot humiltarun aundiak regu
ercaizarula zri recatuetan exozera; eta zure gracia reguin,
proponizent diot lenago paderritu munduko deshoda guiaz uz
ezbecatubat egun. misericordia Iauria, Di aiga no?

2. TESTUA

†

Quis¹ ex vobis arguet me de peccato. Joann. c. 8.

1. Aiñ aundia² da becatuaren torpeza, eta ichustasuna, ezi atrazendu Jangoicoa, vere pausutic, onen castigazeco, eta idurizenda eztaucala Jangoicoac misericordia barcازeco becatariari: eta aimberze aborrezizendu³ becatua, ezi becatuaren iduria ere eztu icusi nai: orgatic bada essatendu «*quis ex vobis⁴ arguet me de peccato*» norc villatucodu, edo arquitucodu becatu batene concienian? S[a]n Pablo Apostoloac esaten digu: badaquicie cergatic artuzuen Christo⁵ gure Redemptoreac, gure gorpuza, eta gure naturaleza? orai esanen dut. artuzuen⁶ bada (esaten du S[a]n Pabloc) adiarasteco edo significaceco, ceiñ aundia⁷ den Jangoicoaren aborrezimentua⁸ becatuaren gañan⁹: eta au eracustendigu vere semearen castigoan: cergatic bada Jesu Christo gure redemptorea zen becatariaren iduria, naizue vere Aita Eternoac ilzedien gruzean, cergatic ala nola amorioac onesitendu amazenduenari, ala aborrezimentuac, gaizqui eguitendio aborrezizenduenari «*Revelatur enim ira Dei de Caelo super omnem impietatem, et injustitiam hominum, eorum qui veritatem Dei in justitia detinent¹⁰*.

2. San Pabloc eracustendigu au, emen pasazendenarequi: icustenducie aniz aldis nola gauas parazenden Cerua illunduric ortots¹¹ aundiequi: eguitendu orduan chimista aundi bat, eta bereala asizendire ortotsac, eta erorzendire arraioac, arria, eta vra; orla bada Jesu Christo gure Redemptorea etorri baño len mundu ontara zegon mundu gucia ilunduric: eta artuzuenean gure naturaleza, eguinzu Ceruac chimista aundibat ceñequei icustendugun ceiñ aundia den Jangoicoaren ira becatuaren contra: bereala asizire sanduguiciac¹² predicazen becatarieri, «*Paenitentiam agite*» Etorze bada Christo gure erredemptorea¹³ mundu ontara, ainbat sufrizera, eta au becaturic bague, nola bada gaude gu egui bague gure becatuen penitencia? nola daucagu vioza gogorrago arria baño: icustenbadugu gure Redemptorea gruze batean? egui bague becaturic sufrituzue gruzea; eta guc eguinic ere ainberze egotengara sosegu ain aundiarequi?

3. Icusagun bada claroquiro nola Jangoicoac castigatuzuen becataria-

1. Hau bera dago estalkian, eta gaineko gurutzea.
2. E-an «*aunda*».
3. E-an «*aborezizen-*», eta lehenbizi «*aborizen-*» ipini du. Paragrafo amaian eta 2, 3, 3 «*aborrezizen*», eta lehenbizi «*aborrizen*».
4. E-an «*bobis*» dago. Latinezkoetan beste okerrok zuzendu ditugu: «*pecato*» 2, 1, 1; «*injusticiam*» 2, 1, 1; «*dei*» 2, 1, 1; «*justicia*» 2, 1, 1; «*Penitenciam*» 2, 1, 2; «*aguite*» 2, 1, 2; «*serbus*» 2, 2, 2; crucifixentes» 2, 5, 1.
5. E-an *Xpto*, baina «*Jesuchristo*» 2, 3, 1 eta 2, 5, 3.
6. Gero erantsia bukaerako *-n*.
7. E-an «*aindia*».
8. Lehenbizi «*aborrimentua*». Berdin 2, 2, 3 eta 2, 3, 1. Ik. 3. oharra.
9. Ez «*gañin*» edo «*gañean*», baizik «*gañan*».
10. Bazterrean: *Rom. 1. v. nu. 18.*
11. Lehenbizi «*ostost*», eta 10 bat hitz beherago «*ostotsac*» zegoela lehenbizi ematen du.
12. Lehenbizi «-guciec».
13. Lehenbizi «*redemptorea*», gero «*eredemptorea*».

ren iduria: Aita batec icusi baleza, vere semea, ceiñ maitazenduen aniz, zegola garzelean, eta seme onequi batio vere mutilbat ainberze burriñasco cateequi. [2] jan eta edan bague, eta even guazea dela lurra: daudelaric modu ontan juan baledi garzelera guizon au atrazera andic vere semea maitea;edo mutila; eta semeac ainfite nola icustenduen vere aita, asizenda oius; Aita icusbez nola nagon lecu ontan burriñasco catearequi jan eta edan bague iduquizazu misericordia nitas¹⁴; eta atranazazu lecu ontatic; verzela ilzen naiz: au vera au esatendio mutilak: Jauna badaquit ene mereximentuac eztirela aiñ onac; nola orren semearenac, baña alaere escazendiot ene libertadea: verzela ilenaiz: eta aizen dituelaric guizon onec, vere semearen, eta vere mutilaren¹⁵ ojuac, gogaberaturic mutillas atrazendu au garzeletic eta vzten- du vere semea grilloequi: Zer eguitendu guizon onec! ezta lenago semea ezi mutilla? eztu amazen aniz guizon onec vere semea? bai. baña alare atrazendu garzeletic mutilla, eta gueiago naidu ildaien vere semea ezi mutilla.

4. Au berau pasazen da gurequi, eta Christo gure erredemptorearequi¹⁶. Jangoicoa da Jesuchristoren aita, eta gu gara arren esclavoac¹⁷ san Pablok esatenduen bezala «*servus Jesuchristi*» guizonac dauzqui verequi munduko miseriaguciac, baña gucietatic aundienada, izatea becataria. Jangoicoaren semeac padetzitubiardu ainberze, ezi solo pensazeas parazenda izerditan: eta dagolaric peligro ontan¹⁸ gure Redemptorea exclamazendu «*Pater si possibile est transeat a me calix iste*» ene Aita¹⁹ icusbez cebat padecitu biardudan, ezi solo pensazeas ematendida izerdi odolesco batec²⁰: ematendu oiubat guizonac edo esclavoac: Jauna icusbeza ene miseria, eta desdicha, izanbez misericordia nitas²¹: eta Jangoicoac vereala erremediazendu guizona eta vztendu vere seme maitea erremedioric bague: zer eguitendu zu Jauna? cer eguinbiardu, erremediazendu gure naturaleza, eta vztendu ilzera gruze batean vere semea. ceiñ aundia izanenda vecatuaren malicia, eta Jangoicoaren amorioa guizonendako! iminzue Jangoicoac pisuaren aldeba- tean vere semea. vere²² mereximentu infinitoequi; eta verze aldean imini- zue²³ guizona vere miseria eta ingratitudoequi: eta gorazenda gruzebatean Jangoicoaren semea, eta guizonac nola pisazen duen baitu²⁴ gueiago gueldi- zenda lurrean; eta gure Redentorearen gruzearequi garvizendire guizonen viozac becatuetatic.

5. Baña guizonec, alare eztute eguiten casoric, baicican entendamen- turic bague eguitentuste vere gusto gaistoac, eta Jangoicoaren ofensak: baña Jangoicoac naizue eracusi ceiñ aundia den becatuaren aborrezimentua, bada lenago esanuen bezala eztu icusi nai [3] becatariaren iduria. izuligaizen berris gure Redemptorearengana, eta icusicodugu claroquiro: Jangoicoac naizue eracusi gueiago becatuaren aborrezimentua: eta cergatic vere semea zen

14. Lehenbizi «nizaz».

15. E-an «mutillarren».

16. Ik. 13 oharra.

17. Lehenbizi «escloba (sic -a) edo lotequia».

18. E-an *onta, -n* gabe.

19. Lehenbizi *Aita enea*.

20. E-an *bat*, bukaerako *-ec* gabe.

21. Lehenbizi *enetas*.

22. Lehenbizi *arran*.

23. Lehenbizi «imin, gero «imini» bihurtua. Aldatu gabe «imin» 12 bat hitz gorago.

24. Lerro artean erantsia *baitu, duen* ezabatu gabe.

iduritua vecatariari, bereala manatuciote Jangoicoac parazezatela gruzean. Herri ontan guizon bat asarrazenbada verze guizon batequi, gueien eguiten-duena da, icusten barinbada²⁵ verze guizon arren etsaia iduriduen²⁶ bat, eta au solo campotic, cergicatic varrenean verze gauzaric da. verze humore, eta verze condicioric gastazenduena, guizongoni gucien gueien²⁷ esango lioque-na da, cergicatic iduriduzun ene etsaia ez zaitut icusi nai zuaz emendic: baña Jangoicoac gueiago eguitendu au baño vere semearequi: Jesuchristo gure Jaunac campotic iduridu veccataria «*In similitudinem carnis peccati*» baña barrenean ezta becataria, baicican sandua eta choil sandua: eta alaere esaten-du Jangoicoac, ilzazie: Hå Jauna, ezta becataria; baicican becatari iduri duena²⁸: Aasquo da ori, quenzazie ene veguietatic: Jauna zure semea da: alaere esta importacen deus, ilbiardu²⁹ gruzebatean.

6. Icusicoducie orlacoric? eztezaquela veguiz icusi vecatua! eta au egui-tenbadu vere semearequi, cer eguinendu vecatari verarequi? eta alare egon- biardute³⁰ guizonen viozec ain gogorr? alare eguinendute ainberze becatu Jangoicoaren contra: ezi lecu gucietan, ala echean, nola campoan, ala egunas nola gauas, nescacharequi, verequi bacarric, veguiequi, gorpuzarequi, escue- qui, eta esateco beinguas daucatenean ocasioa edatendute vecatua vrabezala? verzela esanzacie: Cerda icustea Mutil edo nescacha bat vere gogo des-onestuarequi? icusicoducie nola ezten arrendaco gauza ain deseaturic³¹ nola lenbaño len eguitea; cer ansia eta deseiorequi naidu: eta vere desdicha iminzen bada arren escuetan vereala eguitenda zaldi bridabaguea bezala. Ha miserableac! eta cein guti considerazen duten becatuaren malicia! Bada Jangoicoac, gruzean parazenbadu vere semea, cergicatic zeukan becatariaren iduria: cer eguiñendu orlaco becatariequi? considerazacie au diligencia eta cuidadorequi: naibaducie vzi vizi gaisto ori, eta salbatu zeuren arimac.

7. Baña guazen alzinago, eta icusicodugu obequi: nola aborrezizen- duen Jangoicoac becatuaren iduria. Saulec choil aborrezituzue David: eta aldibates naizuelaric il David³²: bialduzitue soldadobazuec, Daviden arrapa- zera, ecarzeco Saulen alzinera³³: baña Michol Saulen andreiac, ceñec estima- zenzuen, aniz David: eguinzué Daviden figura bat eta iminicio guazebatean figuraau. eta David vialduzue verze ataribatetic: guero jaiquizenean³⁴ Saul guazetic, vereala³⁵ galdeeguin zio vere andreari non zegon David, andreas [4] essencio guazean zegola: eta coleraturic juanze³⁶ guazera David³⁷ ilzera: baña ainfite nola icusizuen ez zegola guazean David baicican arren³⁸ figura

25. E-an «-da» bide dago. Lehenbizi «ikustenbadu» ipini du, gero aldatu.

26. E-an «-duena» ematen du dagoela, amaierako -a ezabaturik ez badago.

27. Lehenbizi «gueiena».

28. Lehenbizi «becatariari iduritua».

29. Lehenbizi «ilbiarda».

30. Lehenbizi «egonbiardire guizonen viozac ain gogorrac?»

31. Lehenbizi gogotic naitua.

32. E-an «david». Berdin 2, 4, 1.

33. Lehenbizi «-alzina».

34. Lehenbizi «chaima».

35. Lehenbizi «berala».

36. E-an «juanzue».

37. E-an «Divid».

38. Lehenbizi vere.

edo iduria, izanic ere Saulen etsairic³⁹ aundieta ez zio eguin deus Daviden figurari: izanenlizake Saulen odio eta aborrezimenturic aundieta, eman balezo puñalarequi Daviden figurari. Auze Jangoicoaren odioa vecatuaren contra Ha amavirguna gloriosa cer industria zen zurea⁴⁰: zure sabelean formatu ze odol garbiortatic gopuz chiqui bat ceiñ baita becatariaren figura; salbazeco veccatari eguiascoari: eramatendiote Jangoicoari. eta Jangoicoac esatendu, zaticazacie bereala: Jauna ezta baicican beccatariaren irudia⁴¹: esta importazen: Jauna figura gonen varrenean dago zure seme santissimoa. alare ilbiarda: Jauna: gure redemptorearen amac⁴² suspiro eta negarreQui⁴³ veguietan escazen dio vizia vere semearena. eta esatendio Jangoicoac erremedioric bagie ilbiarda.

8. A Jaunac! au eguitenbadu vecatariaren iduria edo figurarequi: cer eguiñendu vecatari eguiascoarequi? castigo aiñ aundieta eguiten badu vere seme santissimoarequi, dituelaric ainberze lagun vere favorean⁴⁴; cer eguiñendu Jangoicoac juicioko egunean vecatariarequi, vacarric, eta lagunzaleric bagie? orduan esanenduzu, zer eguinzipre ene lagun gaistoaiet ceñeQui ainberze aldis ofenditunuen Jangoicoa? nora juandire? emen egon biardut bacarric? ainfite acabatudire munduko contentuac? eta orai juanbiardut bacarric eta solo eramanbiarditut ene obra onac⁴⁵ edo gaistoac Jangoicoaren⁴⁶ juiciora? bada Jangoicoac eguiinbadu castigo, aiñ aundieta, vecatariaren figura-requi, cer eguiñendu enequi eguin baitut ainberze becatu?

9. S[a]n Pabloc essatendu Abelen odolac ematen dituela oiu aundiak Cainen contra: baña Cainen beccatuac ematenzue oiu arren contra, cergatic ilzue vere Anaia campoan: «*Sanguis fratris tui Abel clamat ad me de terra*»⁴⁷ esatendu Jangoicoac. modu ontan bada emanenditu oiu aundiak Jesuchristo gure erredeemptorearen⁴⁸ odolac, gure remediorengatik ichururic gruzean: eta obequi, ezi Abelen odola. cer gauza aiñ contrarioa da Pablo divinoa: orai esanendut: becatu mortale bat da ain ichusia eta ain gaistoa ezi verac gorazendu oiuia ceruraño: orla eguiinbiardute guizonec; eta Jangoicoac sufritubiarditu ciquinqueria evec? vecatarien contra vialduzue Jangoicoac aniz miseria eta castigo⁴⁹. cergatic vecatuequi parazen dituste veren arimak sucal-deco oial ziquinbat bezala, eta vere vorondate gaistoarequi, parazendute verris Jesuchristo gure eRedemptorea⁵⁰ gruzean S[a]n Pabloc [5] esatenduen bezala «*iterum crucifigentes*» erremediazezo bada guizonen miseria guciak: Aita Eternoac bialduzue munduontara Jesuchristo vere semea: eta artuzue gure gorputza edo gure naturaleza, eta esancio vere aita eternoari. emen

39. E-an «etsaic».

40. Lehenbizi «zeurea».

41. Lehenbizi *figura*, gero gainean, lerro artean, *iduria* ipini du, *figura* ezabatu gabe.

42. E-an «ama».

43. E-an «negarequi».

44. Lehenbizi «favorioan».

45. E-an «ona».

46. *Jangoicoaren eta juiciora artean alzina* dago ezabaturik.

47. Bazterrean: *Hebr. cap. 12*.

48. Ik. 13 oharra.

49. Lehenbizi «gastigoac».

50. Lehenbizi «Redemptorea», eta gero e- erantsi. Ik. 13. oharra.

dauazuene persona, bialzaquizu⁵¹ munduko gaizguciac, eta nic sufrituconditut gustorequi il artaraño gruzean: baña aitubiardituzu ene oiuac, cergatic⁵² naizen zure semea.

10. Considerazacie Jaunac ceiñ oiu aiñ aundia ematenduen becatuac, ezta contentazen aizearequi Ceruan baicican jausi⁵³ arastendu mundu ontara Aita eternoaren semea, gure naturalezaren arzera, eta esta gueldizen iminiartaraño gruzebatean, eta andic Jesuchristo gure erredemptoreac⁵⁴ eguiñcio bere Aita eternoari oiu aundibat, essaten ziola Aita barcazazquizu guizonen becatuguciac, cergatic eztaquite cer eguitenduten. «*Pater ignosce illis quia nesciunt quid faciunt*» Nausibatec baleuca garzelean vere mutilla, ilzeco sentenciarequi, eta erremedioric bague ilbiarduela desonrra⁵⁵ aundiarequi; casuontan juatenda Nausia onen icustera: eta dagolaric onequi, esatendio vere mutilari, quenzazquizu zure soñecoac eta arzaquizu⁵⁶ eneac, ni gueldituconaiz lecuontan eta zu zuaz emendic. badaquit ilbiardudala desonrra aundiarequi baña ezta importazen, nic sufrituco ditut desonrra guciac gusto aundiarequi. eta arzendituelaric mutil onec vere nausiaren soñecoac, juantenda garzeletic mutil au, eta uztendu nausia vere lecuan: guero atrazendute-nean garzeletic quenzeco vicia, vrcabean⁵⁷ cembañ negarreQui lagun eguiñenlioque muliarrec? nola egonen lizaque vere vici gucian ematen oiu aundiacc, nausiac onengatic eguinzuena? bada gueldituze onen lecuan garzelean eta guero ilze onen gatic vrcabean.

11. Eta mutil au juan baze verdugoagana, eta arrequi batean, quendu bazio vicia, vere nausiari, egunes gueros ainberze mutil onengatic, cer meresico⁵⁸ luque? Ha Jaunac! au veraau da sucedicenzaiguna guciari, gucioc gueunden⁵⁹ condenaturic ilzera: echidetea, ze, erioza; librazea ze, imposible; eta Jesuchristo gure Jauna Aita eternoaren semea, sartuze gure garzelean trucatuzitue gurequi soñecoac: gueldituze garzelean gu atrazeco andic: ichurizue vere odol Sandua gure erremedioengatic: Odol sanduonecbada cer oiu emanendu vere Aita eternoari beccatariaren contra? merchede au ain aundia, nola pagatucodugu? cembañ sentimentu eta negarreQui lagunendiogu gure Redemptoreari gruzeco videan? [6] eta cer izanenda eguitenbadugu verris vecatu mortale Jaun onen contra? zer izanenda baicican juntatu verdugo edo etsaiequi quenzeco vicia gure Redemptoreari? ingratitudet aïñ aundiacc cer merexidu. correspondencia⁶⁰ ain gaistoa norequi izatenda? orlaco atrebencia solo barbarobatec izanenluque, ezaumentu aïñ gaistoa solo erobatec izanenluque.

51. Lehenbizi «-zazu» eta gero «zaquizu». Berdin egiten du hurrengo paragrafoan, baina espero den «zazquizu» bi aldiz ageri da bigarren paragrafo honetan.

52. Lehenbizi *guero ere naiz arren semea idatzi du, gero cergatic naizen zure semea.*

53. Lehenbizi *eguitendu jaichi eta gero jausi arastendu.*

54. Ik. 13. oharra.

55. Lehenbizi «desondra». Berdin beste bi aldiz paragrafo honetan.

56. Ik. 51. oharra.

57. Lehenbizi «vrcan. Berdin paragrafoaren amaian.

58. Lehenbizi «mereguico (sic -gui-).

59. Lehenbizi bizkaierazko *guengozan*, Larramenditik hartua noski (Ik. Dicc. Tril. ESTAR ‘egon’).

60. Lehenbizi *erranzuquida* (sic -rr-) edo *correspondencia*, gero lehenengo bi hitzak ezabaturik.

12. Eta au gucia au ala delaric izanbiarduzu vioza gogorra arria bezala? alaric ere egonbiarduzu ain sorra aizeco Jangoicoaren itzac? alaric ere iruquibiarduzu zure arima ozturic burriña bezala? ezta asco icustea cemba sufrituzuen Jesu Christo gure Redemptoreac gure erremedioengatic, vsteco zure vici gaisto ori? ezta asco considerazea nola Jesuchristo gure Jaunac ichurizuen vere odol sandua gruzean: iriquizeco arimaren beguiac, eta eguiteco munduontan geuren vecatuen penitencia⁶¹? vzibague, eriozeco orduraco, au eguitea, noiz eztaiquen eguin ongi? O Jesuchristo gure redemptorearen odol soberanoa nola emanenditzu oiu aundiak allegazeni direla ceruraño becatariaren contra! considerazacie bada cein gaistoa eta cein ichusia den becatua, aborrezizeco vioz gucis; Jangoicoac eracusten digun bezala, bada castigatuzue vere semea gure erremediazeco, eta librazeco gure arimac infernutive.

13. Guazen bada gucioc Jesuchristo gure Redemptorearen gana: eta essandezagun negarequi⁶² veguietan, O nere Jesus maitea zure misericordia aundiarengatic etorrizara mundu ontara, arzera gure naturaleza eta padecizera, nic padetzutubiarnuena ene becatu aundiengatic. O nere Redemptorea nola pagatu codut⁶³ mercede⁶⁴ gau aiñ aundia? confesacendut ene Jauna nola orai artaraño izanaizen choil ingratoa, cergatic entendamenturic bague ofendifitudut aniz aldis zure ontasun infinitoa. ezauzendut enea dela culpa eta escazendut humildade⁶⁵ aundiarequi ene vecatuen barcacioa eta proponizendut⁶⁶ lenago galzea mundo gauza guciac, ezi vecatubat eguitea. Misericordia Jauna eta gracia, cembaita⁶⁷ gloriaren prenda seguroa. Ad quam nos perducat qui sine fine vivit et regnat.

61. E-an «penitencia».

62. E-an «negarequi».

63. E-an «-du».

64. Lehenbizi «merxe», gero c ipini du x-ren gainean, hau ezabatu gabe.

65. Lehenbizi *humiltasuquiro* (sic *-su-*, ez *-sun-*), gero *humildade aundiarequi*.

66. E-an «-du». Ik. 63. oharra.

67. Hola: «cem-» eta ez «cein-» edo.

3. TESTUA

†

Assumpsit¹ Jesus Petrum, et Jacobum et Joannem et transfiguratus est ante eos Math. c. 17

Transfiguratuze² Christo gure Jauna Taboresco oianin S[a]n Matheo evangelistac esatenduen bezala egungo evangelioan: eta zeudelaric gusto³ audiarequi ycisten, eta considerazen Christo gure redemptorearen churitasun vra, irur discipuloe, ceiñ⁴ baizire S[a]n Pedro, S[a]n Tiago, eta S[a]n Juan; aguertuzire oian artan Moyses eta Elias minzazen Christo gure Jaunarequi: eta cer esanciote? vereala asizire minzazen cembat padezitu izanbiarzuen gruzean Christo gure Jaunac «*Loquebantur de excessu quem completurus erat in Jerusalem*»⁵ Cerdarau? Christo gure redemptorearen aurpeguia dagonean ain galanta nola iguzquia; orduan minzazendiote nola egonbiarda ilunduric? eta daudenean vere soñequoac churiac elurrabezala; orduan lutoes minzazendiote? bay. cergicat ezta mundo⁶ ontan alegria, edo gozo aiñ andiric ezpaita⁷ nastecazen tristezarequi. Christoc verac izandu oian artan gozo aundia, baña nastecaturic calbarioaren tristezarequi. egun bada icusicodugu, nola munduko contentuac, ondasunac eta gozaldi guciac, eriozarequi izulzendire, negarretan, suspiroetan, eta viozaren antsietan.

S[a]n Gregorio Nacianzenoc esatendigu, gure vizi guciac juatendirela vra bezala eta au bera au declarazendu Spiritu sanduac, cergicat guizoneen vizi guciac dire erreccaco vra vezala, cein juatenda gutibana gutibana ematera, edo parazera ichasoaren vrgacietara consideracio aundia eta ederra da au, guazen bada sosegu eta diligenciarequi consideracio ontan baita choil necesarioa gure arimarendako. badaquite⁸ nola jaiocenden vgalde bat? bidaizacie cuidadorequi.

Menditic atrazenda vr piscabat edo⁹ iturri chiquibat vr au erorzenda guichibana arrien erditic, eta eguitendu arraitu guchibat, orla etorzenda errira, erritic. Juatenda alorren erditic arroio edo errequa chipi bat bezala, eguitenduelaric emen buzu chiqui bat berze lecubatean berze bat eta orla juatenda bi edo irur legua bidean, baña vide ontan emendic juntazenda erreccabat, berze lecu batetic berze bat eta orla eguitenda andiago lembicico vgalde chipi vra; orla ibilzen da cembait legua vide eta verze vgalde chipiaren sarzearequi eguitenda andiago, eta¹⁰ zabalzendu gueiago vere goaia, edo ama¹¹,

1. E-an «Asumsit». Latinezko beste okerrok zuzendu ditugu: «Joanem» hasierako pasartean; «excesu» 3, 1, 1; «Jerusalen» 3, 1, 1; «possita» 3, 5, 2; «anos» 3, 5, 2; «pretereat» 3, 5, 2; «substancijs» 3, 5, 2.

2. Lehenbizi *Bestirudituzue* (sic -rudi- eta -zue).

3. Lehenbizi *gozande*.

4. Lehenbizi «ceiñec» ipini du, eta «Pedroc», «Tiagoc» ta «Juanec».

5. Bazterrean: *Luc. c. 9. 13.*

6. Hemen «mundo», baina 25 bat hitz beherago «munduko».

7. Lehenbizi «eztena nastecaturic» ipini du.

8. «badaquicie» espero da.

9. E-an «etdo».

10. E-an *et*.

11. Lehenbizi *lurra* ipini du.

eta orduan ibilzendo bere videa errien¹² eta Ciudaden ondotic, erregazeni dituela¹³ vere vrarequi alorrac, ardanzeac, eta baratzeguciak; eta vda verrian¹⁴ cantazendute ederqui choriec ala barazetan nola berze lecuetan; vdaverrin atrazendire vr onequi arrosac eta verze aniz gauza; Bañe erreparatubiardugu nola vra ezta [2] gueldizen instante bat baraz, eder, evetan; baizican beti juaten da alzina, soseguric bague, eman artaraño ichasoaren barzuloarequi. cergatic ichaso baita vgalde gucien ostattua: ala bada vrau egun egonenda erri ontan, baña biar arquitucoda ichasoan. eta au; aldaze aundiarequi, cergatic vgaldearen¹⁵ ama aldatuda ichaso triste batean, eta vraren gozotasuna izulida gaci izatera eta ichasoan eztire aizen chorien cantuac baicican vguemarraren¹⁶, eta mariñelaren oiu tristecac.

Aau da pasazendena vrarequi, guciec icustendugun¹⁷ bezala eta au berau pasazenda gurequi: berzela considerazagun ongi: Jaiozendenean aur¹⁸ bat guiac daude echean gozande aundiarequi, bereala iminzendute guaze chipibatean vere pisoyalarequi: orla pasazenda cembait vrtes; baña allegazendenean izatera amasei edo amazazpi vrte, especialquiro izatenbada munduco abratsarena, icusicoducie nola juntazendire arreQui verze mutill¹⁹, aideeac eta verze aniz jende; eta batec eracusicodu maldicio eguitea²⁰ berzebateg chostazera emacumequi eta orla juanendire verzetara, vztendutelaric onequi ziquinduric vr garvi vra²¹, eta mutilcho vra gueldizenda vere costumbre gaistoequi.

Gero izaten duenean oguei ta lau vrte, veirazendu nola dagon vero osasuna, eta vere gorpuza indartasun aundiarequi, eta zabalzendo vere pensamentubanoa, vgaldeac zabalzenduen bezala vere ama²², bereala etorzendire vere pensamentura vere gozande gaistoac, orduan, gozo eta contentu aundiarequi ibilzenda munduco gustotan²³, eta eztaqui verze gauzaric baicican ibilzea, vere gogoetan, danzaetan berenduetan, jostaldetan, eta esateco beinguas ematendio vere vorondateari deseazenduena, baña gauza guiac eguiten ditu indar eta soberbia ain aundiarequi, ezi iduri zaio iretsi²⁴, eta ibili biarduela mundugicia eta vere furorearequi, vgalde aundiac bezala, atropellazenditu gauza guiac, eta votazenditu irritara: cergatic vere pensamentua beti dago pensazen nola eguin biardituen, vere gogo gaisto guiac,

12. Lehenbizi erriaren».

13. Hola leitzen dugu, baina bigarren -i-aren gainean ez dago punturik. Bestalde, lehenbizi duela idatzi du eta gero lerro artean *iti* edo erantsi. Ik. «ditiu» 1, 4, 2 eta «dititudala» 1, 6, 2.

14. Lenbizi «vda verrin». Bederatzi bat hitz beherago «vdaverrin» ageri da, aldatu gabe.

15. Lehenbizi «goaia edo ama», gero goaia ezabatu, ez ordea *edo*.

16. Hitz hau ezabatu gabe, beraren gainean lerro artean *sirenaren* ipini du.

17. Lehenbizi «eta guciec icustendugu begniequi», gero eta ezabatu eta honela: «guciec icustendugu (sic -n gabe) bezala».

18. Lehenbizi «aurrabat».

19. Lehenbizi «mutilla».

20. Hemen «eguitea» eta bi bat hitz beherago «chostazera».

21. Lehenbizi *vra* ipini du, gero hori ezabatu eta *arrec* (sic).

22. Lehenbizi *goaia edo amalurraren ama*, gero lehenengo 3 hitzak kendu.

23. Lehenbizi *doatsutasunean*.

24. Lehenbizi *vra vera guimbaleta ta biarduela mundu gucia*, gero hori ezabatu eta bazterrean «iretsi» ipini du, lerro artean berriz iretchi».

nola cumplitubiardituen vere gustoac, eta desonrrazen²⁵ badu emacume bat edo iago, orgatic eztu arzen ansiaric; orla pasazendute vere vizi gaistoa ala guizonec²⁶ nola emacumeeec. eta nola gure vizia da vgaldearen vra vezala, ezta gueldizen, beti ibilzenda lasterca; gusto gaisto evec pasazendire quea bezala, eta solo gueldizenda gure ariman becatuaren ciquinqueria gucia eta concienciaren escrupuloac. eta contentu, eta gozande guciac²⁷ eriozarequi izulzendire negarretan suspiroetan, eta arimaren ansietan.

Orai pintatucodut nola guertazenden. pasaturic aizea bezala cembait urtes edo demboras. Mutil edo emacume ederronec eguiten duenean vere gusto eta gozande gucia, dagonean oroitubague [3] nola gauza guciac acaba-zendire demborarequi, orduan vialzendu Jangoicoac vere eriozeco eritasuna: vialzendu eritasun aundibat ceñequi bereala juatenda guazera, etorzenda barbera, eta doctore Jauna, bereala iminzenda peligroetan galzeco bicia eta dotoreac²⁸ essatendu mutil edo emacume au lenbaño len confesatu, eta comecatubiarda cergatic erremedioric bague ilzenda. Etorzenda lasterca apeza confesazendu eta comecazendu; juatenda apeza eta eria gueldizenda vere guazean berotasun aundiarequi, eta soseguric bague; Casu ontan bada icus-tendut Mutil edo emacume vra guazebatean vrraturic, sangriarequi; arzendu vere escuequi guazearen arropa, vere itzac eztire aizen ongui cergatic mia trabazenda agoan; gorazenda vularra, eta veguiac sarzendire barrenera: orai, orai considerazendut ceñ ederqui esanzuen S[a]n Gregorioc gure vicia zela vgaldearen vra bezala: cen²⁹ fite aldazenden, egun daucagu osasuna fixoa, eta biar egonen gara guazebatean eritasun aundiarequi: vgaldearen vra bezala egun egonenda erriontan eta biar arquitucoda ichasoan³⁰. eta pasazendena vrarequi, orbat pasazenda gurequi.

Cergatic lembissico gauza eguitenduena Jangoicoac vere eriozeco or-duan da au: beñipein iminzendu guazebatean eziñic, eta izanbaze mutil edo emacume galanta eta ederra, bereala quenzendu arren aurpeguitic edertasun vra, cergatic edertasunarequi eguinzu ainberze becatu, eta izulzenda ederta-sun vra, ichustasunera³¹: eta orla icusicodute, nola emacume egin ongui iduriduenac, eta eramatenduena³² vere edertasunaren azcean guizonen ve-guiac, biar icusico dugu, nola eramatendute guizonec elizara obian sarzeco, eta orduan izanenda ain ichusia, ezi, ez icusteagatic guciec izulicodituste veguiac verze aldera. O ceñ bacarric guelditucoden emacume au obian. guciac juanendire echera, eta au guelditucoda elizan lurraren azpian cer da au³³. Azo ainberze lagunequi eta orai ain bacarric? azo danzaetan eta orai obian? azo aiñ galanta, eta egun aiñ ichusia? au da pasazendena; Galdinzazu bada or barrenean zeure conciencian, galdinzazu emacume oni obian dago-nean;

25. Lehenbizi «desondrazan».

26. Lehenbizi «guizonec» eta «emacumeac».

27. E-an «gucia».

28. «doctore» ipini du 8 bat hitz gorago.

29. Hemen «cen» eta 11 bat hitz gorago «ceñ».

30. E-an «ichosoan».

31. Lehenbizi «itsustasunean».

32. E-an «eramatenduena», -z- erdian eta -a amaieran.

33. Lehenbizi *illozen ezurraren* (sic) *artearen*, gero ezabatu eta horren ordez *cer da au*.

Nora juanda zure edertasuna? cer eguinzipre zure coloregorriac? Non daucazu ainberze lagun? cer eguinda zure minzazea? ain fite galdu dituzu mundo gozande guiac? ain fite acabatudire mundo contentuac? or egonbiarduzu beti? emen egonbiarduzu ezurraren artean? eta au berau pasatu biarda enequi? ontara etorri biardireene gusto gaisto guiac? ontan izulzenda, gure contentu gucia? au³⁴ da guertazen dena gorputzarequi; eta zure arima non da? non egonenda, arima juanda jangoicoarengana. an dago Jangoicoarequi bacarric, eztauca verze lagunic baicican [4] vere obra onac edo gaistoac, cergatic gure óbra onac edo gaistoac lagunzendigute Jangoicoaren juicioan. Orduan izanenda viozaren antsia orduan izanenda salbacioaren beldurtasuna, orduan gauza guiac izanendire considerazea nola atracodiren andic; orduan izanendute sentimenduaudia, considerazeni ceñ trabajo gutierrezi irabazizquetaen cerua mundu ontan, eta ordu artan guiac dire viozaren ansiac, concienciaren escrupuloac³⁵, eta eriozeco orduan gueiago senti-zendu considerazeas vere vici gaistoa ezi eritasunaren doloreac. eta orla vician idurizenzaiotena vecatu chipia ceñes eztuzun egun casoric; orduartan izanendire andiagoac mendiguiac baño;

Baña admirazeni dena gueiago da, icustea emacume galant vra azo ibilzenzena verze³⁶ lagunequi danzazen, eta cantazeni, Anguirubat bezala, ez alabazen Jangoicoari, baicican verze cantu desonestua gucien aplausorequi³⁷, orduan alabazenzutela: au berau vere eriozeco orduan izulicoda clamoretan, eta erresponsoetan triste. bercela essanzazie, cembat guizon eta emacume ezautudituzie alegre zirela mundu ontan? eta egun icusten baditugu alegre; viar icusico ditugu tristeza audiarequi vere eriozaren orduan, cergatic dauzquite³⁸ veren concienciac erchiric ainberze becatuequi; ordu ontan berac icustenduelaric vere arimaren miseria, vere viciaren desordena, eta cer contu ain gaistoa eman biardion Jangoicoari, cergatic egun baizue vere vician ainberze becatu Jangoicoaren contra; arrec verac, vere contentu gucia, eta viziaren gozande gucia izulzendifu suspiroetan, negarretan, eta viozaren ansietan, cergatic ontan parazendire eriozarequi becatarien gusto, eta contentuac.

Bada ain fite aldazenbadire mundo gauza guiac zuc logreroa noren-daco alchazenduzu ainberze dirua? Emacume galanta zetaco ibilzenzara pensazeni nola egunbiarduzun zure gogo gaistoa ala zurequin³⁹ bacarric nola verze mutilequi? zetaco empleazenduzu ainberze dembora componzen zure apaingai guiac agradazeco mundo coari? eztuzu icusten nola egun ilzenden zure adisquidea, viar zure aizpa, verze egunbatean eramatendu eriozeac mutil vra norequi egun dituzun ainberze becatu Jangoicoaren contra⁴⁰? esanenduzu bai Jauna orla guertazenda comunquiro. bada dembo-ra pasazeni bada, eta eramatzen baditu berzen arimac; ezta au cergatic azendu-zaion zurea, etorricoda⁴¹ zuc pensazeneztuzunean eta orduan quenducodi-

34. Lehenbizi «Gau».

35. E-an «escrupuluoac».

36. Ematen du vere espero dela. Berdin 11 bat hitz beherago.

37. Lehenbizi *dunduria edo aplausorequi*, gero lehenengo bi hitzak kendu.

38. E-an lehenbizi «daucate» eta gero «daucquite» (sic -c-).

39. E-an «zuerequin».

40. E-an «conta».

41. E-an dauden zuzenketen arabera, «eta orritucoda» irakurri behar genuke.

zu zure arima eta mundo gauza guiac, cergatic gucia guelditubiarda emen, eztuzu cer eraman mundutic baicican zure becatuac eta zure becatuen sentimendu aundiak considerazzen⁴² cein gaizqui gastatuduzun⁴³ dembora; eta dolore aundiak considerazeas nola gusto gaistoengati, ceñ bereala pasa-zenbaita, icustenda orai zure arima galduoric seculaco. eta erremedioric bague; eta nola galduzun sanduen eta Jangoicoaren lagun⁴⁴; izatea.

[5] Orduan esanenduzu, O cein ongi desengañazten confesoreec eta predicazalec, esatenzutelaric considera guendezquiela⁴⁵ nola mundo ondasunac, contentuac, eta gusto guiac pasazendiren instante bates aizea bezala; eta nola eriozaren eritasunarequi, izulzendiren⁴⁶ negarretan suspiroetan, eta viozaren antsietan. au da aien fina eta⁴⁷ ontan paratubiardire. Etaau gucia au ala delaric izanbiarduzu bioza aiñ gogorra? alaric ere egonbiarduzu aiñ sorra ez aizco Jangoicoaren itzac? alaric ere iruquibiarduzu zure arima ain ozturic nola burrina? ezta asco, icustea nola verze aniz ilzendiren vztenditustela mundoontan veren ondasun guiac, iriquizeco orai arimaren⁴⁸ veguiac,-eta emateco pobrari limosna iarabazteco onequi cerua, eta ez botatu infernura, edo condenatu zure arima vsteagatic abrasac zeure⁴⁹ echea edo semea? cer idurizaizu semeac atracoduela infernutive, zure arima arara juaten bada? O guizonen desdicha aundia! aizen, eta icusten dituelaric ainberze desengañu, eztute eguiten casoric, baicican beti izulzendire vere gozandegucietara. orcomponbada, nic esatendut egquia, eta zuec icustendie; escarmentazeco bada bercen buruan, aizazie S[a]n Lucas Evangelistac esatenduena.

Mundu ontan izanze guizon bat chol abrasa; guizon onec zeuca aiñberze gari vere aposentu guiac cire chipiac ainberze gariendako, etainberze olio ezi ez zeuca lecuric iminzeco ainberze. eta egotenzelaric pensazen, cer eguinbiarzuen ainberze ondasun, vere determinazioa ze vrrazea, edo deseguitea eche gucia, eta eguitea berze berri eta andiagobat: guizon onec bada ainberze ondasunequi essatenzio vere arimari, ene arima emen daucazu ainberze ondasun pasazeko ederqui zure bicigucia, janzazu, eta edanzazu naiduzuna, emen daucazu ainberze diru, gari, olio, eta ardo «*Anima mea habes multa bona posita in annos plurimos*» Ondasun evetan daucazu escumilla descansazeco: baña au guciaau esaten zue consideratu bague, nola dembora pasazenden, eta erioza etorzenden gutibana gutibana «*Nescit quod tempus praetereat*» baña cegolaric gozande, eta gusto aundiarequi pensamentu evetan: aituzue oiubat, ceñec essancion «*Stulte hac nocte animam tuam repetent a te*» esanzazu orai jaquingabea gau ontan eramanendute Diabruet zure arima infernura, eta an egon biarda seculaco: essanzazu orai norendako dire zure ondasun guiac. Eroa norendako alchazenditzu? eta cer esanendu ene arimak icustenduelaric nola erchizenduten eriozaren ant-

42. Hemen «considerazzen» eta 8 bat hitz beherago «considerazeas», lehenbizi «considerazzen» ipini duelarik.

43. E-an lehenbizi «-du» eta gero «-dun», ez «-duzun».

44. Lehenbizi «lagunquida».

45. Lehenbizi «consideradezazquigula».

46. E-an «-dire», baina 9 bat hitz gorago «-diren», bukaerako -n erantsirik.

47. E-an *et.*

48. E-an «arrimaren».

49. Lehenbizi «vere echea eta vere semea?» ipini du.

siec. O erioza! ceiñ aundia den zure mintasuna, sabioac⁵⁰ essaten zuen bezala «*O mors quam amara est memoria tua homini pacem habenti in substantijs suis*» O eriotza cein tristea den zure ordua! ceiñ incertoa⁵¹ den zure ilzeco dembora, ceiñ gozagabea zure fina, cein gacia den zure ichasoco vra, [6] eta zure oroizea cen mina! baña ez guciendaco, baicican gaistoendaco, evendacoda choil mina eriozas⁵² oroitzea cergatic evec beirazendituste veren ondasunac, eta veren gusto gaistoac, Jangoicoa baño gueiago, veti daude pensazen an verebarrenean, nola cumplitucoditusten veren gustoac, eta ezpadaique cumpritu verzearequi, eguitendu verac bacarric. Ezta au eguiua, ezta pasazen orla? O nere Jauna minza albaleizque⁵³, guazec, eta aposentuec, esanenluquete.

Aibezate bada exempluau, eta onequi acabazendut. Ciudadate batean izanze emacume bat, ceñec pasazenzue bere bicia chostetan guizonequi, eta nola guizonequi chostazeac, beti ecarzenditu ala besarcac, nola pensamentu gaistoac: emacume onec anfite nola icustenzuen, mutil bat bereala bialzen zue Diabruac vere pensamentura desseo gaistoa becatu eguiteco mutil arre-qui, eta ezpalinbadu eguin. cergatic⁵⁴ beldur baita esateco mutillari; edo verze gauzaengatic bereala juaten ze bere guazera eta an bacarric berac eguiten zue escuequi. bici ontan proseguituzue 4 vrte; baña egun bates juan zelaric becatuau eguitera vere aposentura: gure Jaun eta Jangoicoac⁵⁵ quenducio bicia guazean; eta juance vere arima seculaco infernura; orla castigazendu Jangoicoac becatu eguiten duena eta ontan paracendire munduko contentuac.

Eta aizenduciolaric castigoau aiñ andia nola eguinzuuen Jangoicoac emacume arrequi; eguinenducie orlacoric? eztucie eguinen zeure becatuen confesio general⁵⁶ bat, garvizeco zeuren arima gaisioac becatuen ciquinquerietatic? aizenduciolaric, eta icustenduciolaric ainberze desengaño, alare egonen zarate zeuren conciencia gogorragoquoarequi arriguiac baño Ez, ez, catolicoad, orai ematen digu Jangoicoac dembora eguiteco gure becatu gucion penitencia eguiaskoa. Guazenbada Jesu Christo gure Redemptorearengana. emen dago gruzeontan eta dauzca besoac zabal zabala⁵⁷ errecebizeco becatari guciak, etorzen badire humildadearequi verevecatuen barcacioa escazera: atozte⁵⁸ bada eta essanbezacie bioz gicias. Ene Jaun soberanua ene vizi gucion egonaiz dibertituric munduco gauzequi, et confesazendut nola ene pensamentuarequi, eta ene obra gaistoequi ofenditudut ainberze aldis orren ontasun infinitua⁵⁹ baña ezaunzen⁶⁰ dut orren misericordia⁶¹ dela infinitoa eta orgatic escazen dut damuturic ene becatu gucion barcacioa; eta eldu naiz

50. Lehenbizi «*Jaqinzuac* (sic -z-) ipini du, gero *sabioac*.

51. Lehenbizi «*ceiñ atdandetua* (sic -td-), gero «*ceiñ incertoa den*».

52. E-an «*erriozas*».

53. Lehenbizi «*minzatu albadadiquete*».

54. E-an *cergatic*. *cergatic* errekipikaturik.

55. E-an «*Jangoicoa*».

56. E-an «*gueneral*».

57. Lehenbizi «*zabal zabalac*».

58. Lehenbizi *etorribezaite*.

59. Zazpi bat hitz beherago «*infinitoa*».

60. 25 bat hitz beherago «*ezauzen*».

61. E-an «*misericosdia*».

orrengana humiltasunarequi eta negarrequi escazera orren gracia; ezauzendut enea dela culpa baña orai proponizendut lenago il, ezi berris becatu eguitea.⁶² Misericordia Jauna misericordia eta gracia cein baita gloriaren prenda seguroa. ad quam nos perducat qui &.

62. Lehenbizi «eguin». Ik. *il* 4 hitz gorago.

4. TESTUA

†

Haec¹ omnia tibi dabo si cadens adoraveris me. Math. 4

1. Andiac eta aniz dire Diabruaren tentacioac, ceñequin² naiditu era-man gure arimac infernura. eta choil guiti eguitendugu guc evec garaizeco, Egungo egunean esatendigu Evangelio Sanduac, nola Diabruac³ tentatzuen oianean⁴ irur aldis Christo gure redemptorea. lenbissicoan oguiarequi, bigarrenean banagloriarequi, eta irugarrenean avaricia edo codiciarequi. vztent-dittut orai lembicico bi⁵ tentacio aiec, eta solo esanendut cerbait, nola tentazuen avariciarequi; Eramanzue Diabruac⁶ Christo gure Redemptorea mendivatera, eta andic eracusicio mundu gucia, eta esancio «*Haec omnia tibi dabo si cadens adoraveris me*» au guciaau emanendizut eguiten baduzu becatu mortale bat. Cer da au? Demonioac aguinazazendu mundu gucia vecatu mortale batengatic? aundia da Diabruaren⁷ deseoa galzeco gure arima. baña arimo ona, cergatic Demonioac verac tentacio verarequi eracusten digu eguinbiarduguna garaizeco Diabruaren tentacioac eta orla escazen-diotet gucieri icasidezatela Diabruaren doctrina: cergatic da chol necesarioa salbazeco gure arimac: icusacie nola.

2. Menditic eracusicizquio Diabruac Erreinoac⁸, Ciudadeac, Billac eta mundu gucia, vere ondasunequi eta esancio orla «*haec omnia tibi dabo si cadens adoraveris me*» au guciaau emanendizut eguiten baduzu beccatu mortale bat. Ator onat Diabrua badaquic zer eguiten ducan? mundu gucia emanbiarduc becatu mortalebat eguitea gatic? ez zaio iduri aniz Diabruari ematea mundugucia arimabatengatic? Ez. cergatic ezauzendu cergauza den eta cemba balioduen arimabatec, eta gauzac ezauzendituenac estimazendi-tu: eta estimazendituenac salzenditu garestiago, ezi estimazenestuenac: eta nola guc eztugu ezauzen gure arima cergatic baita espiritala, organic eztugu estimazen eta nola eztugu estimazen salzendugu gure arima ain merque. baña Diabrua nola baita espiritu gure arima bezala ezauzendu ongi cer gauza den gure arima: organic estimazendu ainberze, ezi lembichico aldian ematendu mundu⁹ gucia arima batengatic; cergatic gure arimac gueiago baliodu mundu guciak baño. Icusacie nola Diabruac verac vere tentacioare-qui eracustendigu doctrina miragarri bat gure arimarendaco: Icasacie Dia-bruaren precio au salzeco gure arima, considerazagun nola gure arimac

1. Estalki bezala erabili den paperean pasarte hau bera ager da, eta gainera mintzaldia-ren hasierako hitzok: «Aniz eta andiac dire tentacioac ceñequi diabruac nai du (sic) eraman gure arimac infernura, eta guc guchiscoegui».

2. Lehenbizi «ceñequi».
3. E-an «Diabuac».
4. Lehenbizi «ojanin».
5. Lehenbizi «bi circunstaniac», gero «bi tentacio aiec».
6. E-an «Diabuac». Ik. 3. oharra.
7. E-an «Diabuaren».
8. E-an «Ereinoac».
9. Errepikaturik mundu.

gueiago balio duen mundu guciac baño: eta au da eguibat ain fixoa ezi Diabruac verac confesazendu egungo evangelioan.

[2] 3. Eta guc ere confesatu biardugu: icusacie claroquiro: gauza guciac estimazendire aniz, aniz costazen badire, baña guti costazenbadire, guti estimazendire: eta orla gueiago estimazendugu zillarraren librabat, ezi¹⁰ agozarena, cergicte gueiago costazenda zillarra, agoza baño. Oraibada cer costacizaio¹¹ Christo gure Redemptoreari arimabat, eta cer costatucizaio mundu gucia? Mundu gucia costatucizaio izbat «*ipse dixit, et facta sunt*» baña arima bat costatucizaio Christoren erioza eta vere odol sandu gucia: bida mundu gucia ezbarinbada costazen baizican Jangoicoaren itza, eta arima bat costazenbada gure Redemptorearen odol sandua: icus bezate orai, eta considera bezate cemba gueiago balio duen arima batec eziez munduguciak¹²: considerazacie or barrenean zeuren conciencian, eta icusicoducie nola arimabat estimatu bearden gueiago ezi mundu gucia: ala estimazendu Christo gure Jaunac eta Diabruac¹³ berac estimazendu, eta confesazendu au vera au; solo guc estimazendugu ain guti gure arima, ezi gusto gaisto batengatic salzen diogu Diabruari, eta ematendiogu aiñ merque. nola icusten baita.

4. Losazengara jaquiteas nola Judasec salduzuen vere Maestro divinoa eta galduzue vere arima, oguei tamar errealengatic¹⁴. O cembatec ematen-dioten vere arima Diabruari vere gogo gaistoa eguitea gatic! O eta considerenbadugu ceñ merque salzendugun gure arima! ainberze aldis nola eguitendugun becatu mortale bat, ainberze aldis salcendiogu gure arima Diabruari escritura sagratuac esatenduen bezala «*Venumdatus¹⁵ est ut faceret malum*»¹⁶ cergicte vecatu mortalaren malicia da aiñ aundia, ezi becatuarequi salzendugu Jangoicoa eta ematendiogu gure arima Diabruari. eta au guciak ala delaric izanenda guizon eguienbaitu vecatu biescuequi, nonnai, eta ocasio gucietan? ontas lamentazen ze job, esanzuenean «*abominabilis et inutilis homo qui bibit quasi aquam iniquitatem*» O guizon miserablea, nagagarria¹⁷, edo abominablea allegatzara dembora batera, ceñetan edaten-baitituzu becatuac vra bezala egarri¹⁸ aniz daucazuenean¹⁹.

5. Cergicte bada comparazendu Sandu onec vrarequi becatua, eta ez ardoarequi edo olioarequi. cergicte ardoa eta olioia costazenda dirua, eta orgatic eztugu edaten naidugunean, auda arracioa²⁰ cergicte eztuen compa-razen ardoarequi edo olioarequi. baña nola vra arquizenbaita nonai eta

10. Errepikaturik ezi.

11. Lehenbizi «costatucio». Berdin 7 eta 12 bat hitz beherago, gero «costatucizaio» bihurturik.

12. E-an «-gucia».

13. E-an «Diabrua».

14. E-an «serealengatic».

15. E-an «venundatus». Latinezko beste okerrok zuzendu ditugu: «vivit» 4, 2, 2; «ani» ‘animae’ 4, 3, 2; «paciatur» 4, 3, 2; «comutacionem» 4, 4, 1; «bilius» 4, 4, 2; «Mite» 4, 5, 2.

16. Bazterrean: *lib[er] Reg. c. 21. 25.*

17. Beharbada «nazcagarria» izan behar luke.

18. E-an «egar».

19. Hitza idatzi ondoren sartua lehenbiziko -e- bokala adizki honetan, baina «daucazu-nean» espero da.

20. E-an «aracioa».

diruric bague, edatendugu vra naidugunean eta vrarequi garvizen ditugu gauza guiac eta sentimenturic bague botazendugu lurrera. O Jauna eta cembat dire munduonetan ezpaitute gauza vsualagoric [3] nola salzea vere arima Diabruari vere gusto gaisto batengatic! vere echian²¹ campoan, ala gauas nola egunas, emacumearequi, verequi vacarric, veguiuequi, gorpuzarequi, escuequi, eta esateco veinguas daucatenean ocasioa edatendute vecatua vra bezala; verzela esanzacie. Cer da icustea guizon edo emacumebat vere gogo²² desonestuarequi? icusicodute nola ezten arrendaco gauza aiñ gogotic naitua, nola lenbaño len eguitea: cer ansia eta deseоarequi naidu eta vere desdichac²³ iminzenbadu²⁴ escuetan vereala executazendu zaldi bridabaguerac bezala, ematendiolaric onequi vere arima Diabruari deus bague: eta gusto gaisto baten gatic.

6. Ea jaunac badaquit saldu biardituciela zeuren arimac, eta nic ematendiciet licencia salzeco Diabruari arima guiac, baña benipein pisatu biarditucie zeuren arimac, eta considerazacie cembat balioduen, eta guero nic ematen diciet licencia salzeco: eta cer pisuetan pisatu biardire gure arimac? guizonen pisuetan? ez, cergatic flacuac baitire. Cer pisuetan pisatu biardire bada. Pisazazquizie Diabruaren pisuetan, eta orrequi contentazen naiz. Arzazie Diabruaren pisua escuetan, iminzazie aldebatean mundu gucia, eta verzean arima bat, eta arquitucoducie nola arimac pisazenduen gueiago, munduguciac²⁵ baño «*Haec omnia tibi dabo si cadens adoraveris me*» au gucia au esatendu Diabruac, emanendizut, eguiten baduzu becatu mortale bat. Cergatic bada ematendut licencia salzeco zeuren arimac icusagun tratuau ona barin bada edo gaistoa. Demonioac ematenbadu guizon bati mundu gucia, eta guizonac ematendio Diabruari vere arima, hizanenda guizon au mercatari ona? irabacicodu aniz? Christo gure Jaunac esaten digu eztela mercatari ona «*Quid prodest homini si mundum universum lucretur animae vero suae detrimentum patiatur*» Cer provechatuco zaio gizonbati irabastea mundu gucia, galzenbadu vere arima seculaco? O, eta cer consideracio aiñ Divinoa da au!

7. Alejandro Magno eta Julio Cesar izandu dire mundoconausiac: baña aien arimac daude infernuco sugarretan, eta an egonbiardire seculaco. Galdeitendut orai. Cer probechu izanduzute iruguiteagatic²⁶ vere escuetan mundu gucia? idurizaiote dela contu ona ematea vere arima, mundu guciarenengatic? Gauza ona ze mundoconausi izatea, eta egotea orai erremedioric bague infernuetan? Norc nailuque orai izatea Alejandro edo Julio Cesar bezala? guciec esanendute Jangoicoari nai eztaquiola. izan bacire mundoconausiac, eta nausiac? egua da, baña galduzituste veren arimac. [4] O guizonen itsutasuna, eta miseria aundia! verzeengatic gaizqui idurizenzaigu ematea arima munduguciarenengatic, eta guc²⁷ ematen dugu gurea Diabruari ez

21. Lehenbizi «echin».

22. Lehenbizi «deseo», eta gero lerro artean gogo ipini du, «deseo» ezabatu gabe.

23. E-an «desdicha».

24. E-an «inminzen-».

25. E-an «guicia».

26. Lehenbizi «izateagatic», gero beste esku batek beste tinta batekin «iruguiteagatic» egina. Ik. autoreaz hitz egitean esan duguna.

27. Errepikaturik guc.

munduaren gatic, baizican deusbague! Cembañar izanendire ematendutenac veren arimac Diabruari codicia gaistoarengatic? Cembañar guizon eta emacumez ematendiote veren arimac Diabruari, ibilzendire deseguiñic, secaturic, eta galduric ala egunas nola gauas? eta cergatic da au gucia au? cergatic eztutenean considerazen nola veren arimac valioduen gueiago mundu guciak²⁸ baño. eztute arzen veren escuetan arimaren pisua considerazeco ceiñ guti balioduen irabaztea mundu gucia, galzenbadu irabazeirequi²⁹ vere arima. Lusurero³⁰ edo avarientoac considerabalez nola vere diruarequi juanbiarduen infernura, eta guizon edo emacume desonestuac considerazen badu nola gusto gaisto bereala pasazenden batengatic; ematenduen vere arima Diabruari atormentazeco seculaco infernuco sugarretan? nic asegurazen dut eztuzuela egunen ainberze becatu eta ain facilidate aundiarequi nola eguiten dituzuen. Icasagun Christo gure Jaunac esanzuena Diabruari, zetaco naidugu mundugucia, galzen badugu gure arima? «*Quid prodest homini?*» onequi quenducoditugu gure pensamentutic Diabruaren tentacioac, eta vzicodu diabruac gure arima sosegu aundiarequi. eta Juanenda alqueturic. edo verzela esanzacie, cergauza izanenda mundu ontan ain ona eta aiñ miragarria emateco ene arima gauza arrengatic. «*Aut quam habebit homo commutationem pro anima sua?*»

8. Munduko gauza guciec daucate verze gauzaric ceñequei cambiatu daique³¹: descansua, hondasunarengatic, hondasunac viciarengatic, vicia honrrarengatic³², eta honrra, arimarengatic, cergatic lenago galdu biardugu hondasunac, vicia, eta hondra, ezi arima. baña mundu ontan eztago gauzaric ceñequei gaudiatu³³ daique gure arima. eta delaric gure arima ain aundia eta aiñ miragarria, eztaucagu guc gauza aiñ chiquiric eta aiñ ichusiric nola gure arima, cergatic edocein gauzagatic ematendugu. baña esanbiardut Senecaren eguibat, ceinbaita evangelio sandua bezala «*Nihil est homini se ipso vilius*» eztuzu arquituco munduontan gauza aiñ despreciaturic guretako, nola gure arima: icusacie ongi zeuren echea, icusacie cuidadorequi, villazacie gauzaric chipi chiquiena eta arquitucoduzu³⁴ dela zure arima.

9. Icasagun nola den gauzaau. saldubearbaduzu echea edo alorra, edo cherria edo verze gauzabat iminzenduzu precio ona, eta eztuzu emanen ezparinbadute ongi pagazen [5] echea edo alorra edo verze gauza, salzenduzunean. bada ezpaduzunai eman echea edo verzegauza ongi pagatubague; cergatic ematenduzu aiñ merque zure arima ceñ³⁵ costatuzue ainberze nola Christo gure redemptorearen azoteac, aranzearen corona, eta vere odol preciosoa? Cer egindu zure arima gaisoac? cergatic tratazen duzu ain gazqui? eztuzu tratatuco zure arima, zure echea edo alorra bezala? eztuzu tratatuco cherriari bezala? Norbaitec esatenbadizu, cergatic eztuzu salzen

28. E-an «gucia».

29. Hola: «irabazeirequi», lehenbizi «irabazearequi» idatzi duela, eta «irabaztearequi» edo espero dela. Ik. 4 bat hitz gorago «irabaztea».

30. Lehenbizi *lucurariac*.

31. «daizquen» espero da.

32. E-an «hondrarengatic» eta bi hitz beherago «hondra».

33. 26 bat hitz gorago «cambiatu» dio.

34. «ducie» espero da, baina subjetua aldatu egin du.

35. Lehenbizi «ceñec».

zure echea edo alorra merqueago balioduen baño, esatendiozu bereala ez-tuzula nai botatu sura errezeco: eta naiduzu botatu zure arima pobrea infernura errezeco? naiduzu botatu chacurrari? ezta obeago galzea ondasunac, ezi galzea arima seculaco?

10. Icusagun orai cer eguinzuenean Diabruac galzeco arimabat, guri confundizeco eta lotsazeco cergatic eguiten dugun ain guti salbazeco gure arima. Juanze bada Diabrua oianetara, an egonze berroguei egunes veren gauzequi, Anacoreta aundia bezala, eta dembora ontan beti egonze diligencia eta cuidado aundiarequi, echiten ocasioa galzeco Christo gure Redemptorearen arima; eta aiñ laster nola hizanzuen ocasioa, bereala egun zitue diligencia guciac, vzibague arriric mobizeco. baña icusizuelaric gauza guciac atrazen-zizaizquiola gaizqui, juanze elizara, eta esancio Christo gure Redemptoreari iganzeiela goitura eta andican saltazeiela beitira «*Mitte te deorsum*» baña Christo gure Jaunac garaituzue diabrua tentacio ontan ere. baña Diabruac bi aldis garaituric ere, alare eguinxitue diligencia aundiak galzeco Christo gure redemptorearen arima, bereala juanze berris oianetara iganze mendira eta andic icustenzuela mundu gucia, esancio Christo gure Jaunari mundu gucia au emanendizut eguiten baduzu becatu mortale bat «*Haec omnia tibi dabo si cadens adoraveris me*»

11. Possible izanenda eguinbiarduela Diabruac ainberze arima³⁶ batengatic: eta guc egonbiardugu deus eguinbague guardazeco gurea? Diabrua egotenda berroguei egunes oianin guri tentazeco, eta guc egonbiardugu garizumaren berroguei egunetan, artubague ordu erdibat eguiteco oracio Jangoicoari, eta erresistizeco obequi tentacioari. Diabruac veirazenditu gure accione guciac condenazeco gure arima, eta gu egotengara oroitubague guere³⁷ salvacioas! Diabrua juatenda elizara tentazera, eta³⁸ guc eztaquigu juaten elizara negar eguitera gure becatuengatic Publicanoac eguitenzuen bezala? Diabrua ibilzenda ainberze galzeco gure arima; eta guc ematendugu aiñ pausu guti irabasteko guriac [6] ematendugularic³⁹ ainberze pausu galzeco gure becatuequi! eta esateko beinguas Diabruac irabasteagatic gure arimac ematendu lembisicoan mundu gucia, eta guc estimazendugu ain guti gure arima, ezi gusto gaisto batengatic ematendiogu Diabruari! O gure miseria aundia! o becatariaren itsutasuna⁴⁰! Aizenduelaric⁴¹, eta icustenduelaric ainberze miseria eta ainberze castigo becatariaren contra, ceñe qui Jangoicoac castigazenditu, ala ere eztute eguien vere becatugucien penitencia eguiasco bat; ala ere eztute vzico vici gaisto ori. nai duzu guerta daquizun anizeri guertatuzaiotena.

12. Aizazie bada exemplua Escritura sagratuac contazendu nola borz ciudade chol aundiak, eta abrasac ziren mundu ontan, Ciudadate evetan bada gende gucia ala guizonac nola emacumeac vicizencire vere gusto eta gogo

36. E-an «*arilma*».

37. Beharbada «*gure*» irakurri behar da, silaba horretako -e- bokala ezabaturik egon litekeelako (?).

38. E-an *et.*

39. Lehenbizi *emanesgueros*.

40. E-an «*itsutasuna*».

41. E-an «*Aaizen-*».

gaistoetan, eta ematenzizquiote⁴² veren arimac Diabruari vere desseo gaistoa eguiteagatic. eta ezzuten nai vzi vere tratu desonestu vra: Baña Jangoicoa⁴³ asarraturic⁴⁴ gende even contra. zeudelaric gusto audiarequi veren torpezaeten, orduan asize Jangoicoaren ira descargazzen Ciudea evetan ainberze su eta arraio ezi instante bates, ala Echeac, nola acienda guciac, guizonac nola emacumeac, aurrac eta zarrac, eta esateco beinguas gauza guciac gueldituzire auts⁴⁵ izuliric, eta vere arima guciac jaunzire infernura eta an egonbiardire secula co erremedioric bagne. Castigo au executatuzue Jangoicoaren Justicia divinoac gende gaisto aien contra, cergatic ematenzute vere arimac Diabruari, ez munduguciaengatic baicican vere gogo gaistoa cumplicea gatic.

13. Consideradezagun nola gure arima den joia choil miragarria, eta geiago⁴⁶ baliodu gure arimac⁴⁷, ezi munduguciac, cergatic costatubaize Christo gure redemptorearen odol preciosoa. Icasidezagun bada Christo gure redemptorearen doctrina garaizeco Diabruaren, eta guizonen tentacioac. esanzacie beti, zetaco naidut eguin gauza ori, arrequi condenatubearbada ene arima? Ea bada esanzacie orai enequi Jesuchristo⁴⁸ ene Jauna, badaquit nola orai artaraño egonda⁴⁹ ene entendamentua ilunduric munduco gauzaequi: ezaunzendut cemba aldis saldunue ene arima Diabruari gusto gaisto batengatic, eta cein guti estimazendut ene arima delaric aiñ ona eta aiñ miragarria. ezaunzendut ene Jauna ceiñ guti eguindut librazeco tentaciotic⁵⁰ eta Diabruaren escuetic. baña orren ontasun infinitoarengatic escazendiot ene becatu gucien barcacioa, eta proponizendiot eguitea eguinala quenzeco Diabruaren eta guizonen tentacio gaisto guciac Emen daucazu ene Jauna ene vioz gucia, eta ene arima; orrendaco da eta ez berzeendaco. eta penazenzaida biozean ofenditu baitut orren ontasun infinitoa, baña orren graciarequi lenago naidut il ezi⁵¹ ez berris becatu eguin Misericordia Jauna eta gracia. cein baita &. ad quam.

42. Estu hartuta, «*zizquioteten*» irakurri behar da, lehenbizi *zuten* idatzi duclarik eta gero *iu eta t* artean, hitz horren gainean, *zquiote* ezarri duclarik, *-ten* ezabatu gabe.

43. E-an «Jangoicoac».

44. Lehenbizi *coleraturic*.

45. Lehenbizi *convertituric errautsetan*.

46. Lehenbizu *iago*, gero *geiago* (sic *ge-*).

47. E-an «*arima*».

48. E-an «*Jesuchisto*».

49. «-den» espero da, eta beherago «*saldunuen*», «*estimazendudan* eta «*eguindudan*».

50. E-an «*tentaciotic*».

51. E-an *ez*, bukaerako *-i* gabe.

HIZTEGIA

A

ABORREZITU (a.) ‘gorrotatu, higuindu’. *aborrezitu* (lehenbizi «aborritu») 2, 3, 3.
 ABRAS / -TS (i.; adj.) ‘dirudun’. *abrasac* 3, 5, 1; *abrasa* 1, 1, 3; *abratsarena* 3, 2, 2.
 ADIARASTU (a.) ‘adierazi’. *adiarastu* 1, 4, 1.
 AFRONTU (i.) ‘neke, trabaju’ (?). *afrontuequin* 1, 1, 2.
 AGINDU / AGINZATU (a.) ‘eskaini, opatu / promes egin’. *aguindu* 1, 3, 2; *aguinazzen* 4, 1, 1.
 AGIZ (ad.; d.) ‘guztiz; asko’. *aguziz gaizqui* 1, 1, 1; *becatu aguziz* 1, 4, 2.
 AGOZ (i.) ‘ahortz, lasto’. *agoza* 4, 2, 1.
 ALKETU (a.) ‘ahalketu, lotsatu’. *alqueturic* 4, 4, 1.
 ALTXATU (a.) ‘gorde, bildu’. *alchazen* 3, 4, 3.
 ALZIN (i.) ‘aitzin, aurre’. *Jangoicoaren alzina* 2, 4, 2; *alzinera* 2, 3, 3.
 AMA (i.) ‘ibaibide’. (vgaldearen) goaia, edo *ama* 3, 1, 3.
 AMABIRGINA (i.) ‘Andre Maria’. *amavirguina* (sic *-gui-*) 2, 4, 1.
 AMALUR (i.) ‘ibaibide’. goaia edo *amalurraren* ama 3, 2, 3. Gero ezabatua.
 AMISTANZA (i.) ‘adiskidetasun’. *amistanzatic* 1, 6, 2.
 ANDI / AUNDI / AINDI (adj.) ‘handi, larri’. *andia* 3, 6, 3; *aundi* 1, 1, 1; *aindia* 2, 1, 1. Behin bakarrik *aindi*.
 ANGIRU (i.) ‘aingeru’. *Anguirubat* 3, 4, 2.
 ANITZ / -Z (d.) ‘asko’. *anitz aldis* 2, 1, 2; *aniz aldis* 2, 6, 3; *anizeri* 4, 6, 1. Behin *anitz*, beste guztietan *aniz*.
 APAINGAI (i.) ‘apaindura’. *apaingai* 3, 4, 3.
 ARDANZE (i.) ‘mahasti’. *ardanzeac* 3, 1, 3.
 ARIMA / ARIMO (i.) ‘anima / adore, kemen’. *arima* 1, 1, 3; *arimo* 4, 1, 1.
 ARKITU (a.) ‘aurkitu, topatu’. *arquituzioean* 1, 5, 2.
 ARRAITU (i.) ‘arroitu, hots’. *arraitu* 3, 1, 3.
 ASARRATU (a.) ‘haserretu, enoiatu». *asarraturic* 4, 6, 2.
 ATREBENZIA (i.) ‘ausardia’. *atrevencia* 1, 5, 3; *atrebencia* 2, 6, 1.
 AUTS /ERRAUTS (i.) ‘hauts’. lat. ‘pulvis’. *autsaiet* 1, 4, 1; *convertituric errautsetan* 4, 6, 2; gero «*auts izuliric*» bihurtua.
 AZKAZAL (i.) ‘atzapar’. otsoen escuetan edo *azcazaletan* 1, 2, 2.

B

BAGE / GABE (p.) ‘gabe, barik’. *Jangoico bague* 1, 1, 2; *jaquingabea* 3, 5, 2: adjetiboak sortzen.

BALIN / BARIN (ad.) ‘baldin’. *ezpalinbadu* 3, 6, 2; *ezparinbadute* 4, 4, 3.
 BARBER (i.) ‘osagile’. *barbera*, eta doctore jauna 3, 3, 1.
 BARKAZIO (i.) ‘barkanen’. *barcacioa* 2, 6, 3.
 BARZULO (i.) ‘embocadero’ (Laramendi). *ichasoaren barzuloarequi* 3, 2, 1.
 BEDEIKAZIO (i.) ‘bedeinkazio’. *bedeicacioa* 1, 4, 1.
 BEINGUAS (ad.) ‘beingoan’, gatz. ‘en una palabra’. esateco *beinguas* 1, 2, 3; 2, 3, 2; etab.
 BEITIRA / GOITIRA (ad.) ‘beheitira, behera; gora’. *iganzeiela goitira* eta andican saltazeiela *beitira* 4, 5, 2.
 BELDUR (i.) ‘bildur, ikara’. *beldur* baita 3, 6, 2.
 BEÑIPEIN / -Ñ (ad.) ‘behinik behin, behintzat’. *benipein* 4, 3, 2; *benipein* 3, 3, 2.
 BERATXATU (a.) ‘bigundu’. *verachazeco* 1, 6, 3.
 BESTIRUDITU (a.) ‘itxuraldatu’. *Bestirudituzue* Jesuchristo gure Jaunac 3, 1, 1. Gero «*Transfiguratuze*» bihurtua.
 BEZALA (i.) ‘legez’. *bezala* 1, 1, 2; etab.
 BIALDU (a.) ‘bidali’. *vialdu* 2, 3, 3; *biazaquizu* 2, 5, 1.
 BOTATU (a.) ‘bota, jaurtiki’. *botatu* 3, 5, 1; *vorotatu* 1, 6, 2.
 BURRINA (i.) ‘burdina, burni’. *burriña bezala* 2, 6, 2; nola *burrina* (sic *-n-*) 3, 5, 1; *burriñasco* 2, 1, 3.

D

DESARAUTU (a.) ‘desconcertado’ (Laram.). *guizon gucia dabil ereloxu desaraautua bezala* 1, 2, 3.
 DESONDRA / -RRA (i.) ‘desohore, laido’. *desondra* 2, 5, 2. Gero zuzendu eta «desonrra» egina.
 DOATSUTASUN (i.) ‘onaldi’, lat. ‘prosperitas’. *gozo eta contentu audiarequi ibilzenda munduko doatsutasunean* 3, 2, 3. Gero ezabatu eta *gustotan* egina.
 DUNDURI (i.) ‘txalo’. *gucien dunduria* edo aplausorequi 3, 4, 2. Gero ezabatua.

E

EGINDE (i.) ‘egintza, egitate’. *eguindearequin* 1, 4, 1.
 EGUN (ad.) ‘gaur’. *egungo egunean* 4, 1, 1.
 ERELOXU (i.) ‘erloju’. *ereloxu* 1, 2, 3.
 ERI / -TASUN (i./ i.) ‘gaixo; gaixotasun’. *eria* 3, 3, 1; *eritasun* 3, 3, 1.
 ERRANZUKIDA (i.) ‘correspondencia’ gatz. *erranzuquida* edo correspondencia 2, 6, 1. Gero ezabatua.

GOÑERRIN AURKITUTAKO TESTUAK (IV)

ERREKA (i.) 'lats'. arroio edo *errequa* 3, 1, 3.

ESAN / ESSAN (a.) 'erran'. *esan* 1, 4, 1; etab.; *essan* 1, 4, 2; etab. Ez «erran».

ESKUMAKIL (i.) 'bastón' (Larram.). ondasun evetan daucazu *escumaquilla* descansazeco 3, 5, 2.

EZAUNDU / EZAUTU (a.) 'ezagutu'. *ezaunzen* 3, 6, 3 –gero «ezauzen» egina–: *ezautu* 1, 1, 3; *ezauzen* 2, 6, 3.

EZI (j.) 'ut' lat., 'that' ing.; 'quam' lat., 'than' ingl. ainberzebecatua... *ezi* 2, 3, 2; lenago il, *ezi* berris becatueguitea 3, 6, 3.

EZIN (a.) 'etzan'. guazebatean *ezinic* 3, 3, 2.

F

FABORE / -IO (i.) 'fabore, mesede'. *favrioan* 2, 4, 2. Gero «favorean» bilakatua.

FITE (ad.) 'laster'. ain *fite* nola 1, 4, 1.

G

GAISO / GAIXO (adj.) 'eri'. arima *gaisoa* 1, 5, 1; arima *gaisoac* 3, 6, 3.

GAIZKITASUN (i.) 'gaiztakeria'. *gaizquitasunac* 1, 6, 2.

GALANT (adj.) 'eder'. *galanta* eta ederra 3, 3, 2; *galant* vra 3, 4, 2.

GALDE EGIN / GALDEIN / GALDETU (a.) 'galdegin, itaundu'. *galdeguin* 2, 3, 3; *Galdeiten* 4, 3, 2; *galdetuciote* 1, 5, 3.

GARI (i.) 'triticum' lat. *gari* 3, 5, 2.

GEIAGO / IAGO (ad.) 'gehiago, areago'. *gueiago* 1, 1, 2; etab.; *iago* 4, 6, 3; lehenbizi *iago* idatzidu, baina gero ge (sic -ge) erantsi dio eta horrela «geiago» bihurtuada.

GINBALET (i.) 'daratulu' (?). idurizaio, vra vera *guimbaleta* 3, 2, 3. Gero vra vera *guimbaleta* ezabatua.

GISAGAISO (adj.) 'gizagaixo'. zure arima *guisagaisoac* 4, 5, 1. Gero *guisa-* ezabatu eta *gaisoac* bakarrik utzi.

GITI / GUTI / GUTXII (d.) 'gutxi, urri'. *guti* 3, 1, 1; *guti* 1, 1, 1; *guchi* 3, 1, 3. Gehienetan *guti* ageri da. Ik. GUTIBANA.

GOAIA (i.) 'madre del río' (Larram.). *goaia*,edo ama 3, 1, 3.

GOGABERATU (a.) 'errukitu'. *gogabera-*turic 2, 2, 1.

GOGO (i.) 'nahi, gura'; lat. 'mens'. *gogo* 3, 4, 3; *gogotic* 4, 3, 1; eztuzu iminzen... zure vioza, eta zure *gogoa* gusto gaisto oietan? 1, 4, 3.

GOZAGABEA (adj.) 'gozogabe, mingots'. O... ceiñ *gozagabea* (den) zure fiña...! 3, 5, 2.

GOZALDI (i.) 'atseginaldi, plazer'. *gozaldi* 3, 1, 1.

GOZANDE (i.) 'atsegin, plazer'. *gozande* gaistoac 3, 2, 3.

GRUZE (i.) 'gurutze'. *gruze* batean 2, 1, 2.

GUAZE (i.) 'ohe, ohatze» *guaze* 3, 2, 2.

GUTI- / GUTXIBANA (ad.) 'pixkanaka, geldiro, poliki'. *gutibana* *gutibana* 3, 1, 2; *guchibana* 3, 1, 3.

I

IDUKI / IRUGI / IRUKI (a.) 'eduki, izan'. *iduqui* 1, 6, 2; *irugiteagatic* 4, 3, 3; *iruqui* 2, 6, 2. Behin bakarrik «irugi» eta uste dugunez beste esku baten lana.

IMINI (a.) 'ipini'. *iminizue* 2, 2, 2; *iminzazie* 4, 3, 2.

INDARTASUN (i.) 'indar, kemen'. *indartasun* 3, 2, 3.

IRETSSI / IRETXI (a.) 'irentsi'. *iretsi* 3, 2, 3; *iretxi* 3, 2, 3.

IRIKI (a.) 'ireki, zabaldu'. *iriquizen* 1, 1, 2.

IRUR (d.) 'hiru', *irur* aldis 4, 1, 1.

ITXASO (i.) 'itsaso'. *ichaso* 3, 2, 1.

ITXURI (a.) 'isuri'. *ichuri* 2, 5, 3.

J

JAIKI / TXAIKI (a.) 'jaiki', lat. 'surgo'. *jaiqui* 2, 3, 3. Lehenbizi *chaiqui* idatzidu.

JAIO (a.) 'sortu'. nola *jaiocenden* 3, 1, 2.

JAITXI / JAUSI / JAUTXI (a.) 'jaitsi'. *jai-chi* mundu ontara 2, 5, 2 (lehenbizi *jaichi* eta gero *jausi*); *Jauchize* 1, 3, 3.

JANGOIKO (i.) 'Jaungoiko'. *Jangoico* 1, 1, 2.

JOAN / JUAN (a.) 'joan'. *joan* 1, 1, 1; *juan* 1, 5, 3; *juanen* 2, 5, 3.

JOSTALDE (i.) 'jostaldi, olgeta'. *jostaldetan* 3, 2, 3.

K

KANIBETA (i.) 'ganibet, labana'. *canibeta* bat 1, 5, 2.

KARRIKA (1.) 'kale'. *carrican* 1, 5, 2.

KASTIGATU / GAS- / GAZ- (a.) 'zigortu'. *castigatuciote* 1, 1, 1; *gastigadezala* 1, 3, 2; *gaztagatu* 1, 4, 1.

KENDU (a.) 'gabetu; aldendu'. *quenduce* 1, 2, 2; *quenzazie* 2, 3, 1.

KLAROKIRO (ad.) 'argiro'. *claroquito* 2, 1, 3.

KOLERATU (a.) 'haserretu'. *coleraturic* 2, 4, 1.

KOMUNKIRO (ad.) 'komunki'. *comun-* *quiero* 3, 4, 3.

L

LAGUNKIDA (i.) 'lagunkide'. *Jangoicoaren lagunquida* 3, 4, 3. Gero *lagun* bihurtua.

LENBISIKO / LENBITXIKO (d.) 'lehenbizi-kiko', *lembisiko*, 1, 2, 2; *lembissiko* 3, 3, 2; *lembichiko* 1, 1, 2. Ik. ere *lembicico* 4, 1, 1.

LOTEKI (i.) ‘katibu’. eslaboac edo *lotequia* 2, 2, 2. Gero *edo lotequia* ezabatua.

LOTSATU (a.) ‘ahalketu’. confundizeco eta *lotzazeco* 4, 5, 2.

LUKURARI (i.) ‘lukurrero, diruzale’. *Lucurariac* edo avarientoac 4, 4, 1; gero «*Lucurero* edo avarientoac» egina; *lucraria* (sic -cr-) 3, 4, 3: gero *logreroa* bihurtua.

ONDASUN (i.) ‘bonum, bona’ lat. *ondasun* 3, 5, 2.

ONESI (a.) ‘maitatu’. *onesitendu* 2, 1, 1.

ONTASUN (i.) ‘maitasun’. *ontasun* 1, 3, 1; 4, 6, 3.

ORAI / ORAÑO (ad.) ‘orain; oraindik’. *orai* 1, 1, 1; *oraibada* 1, 2, 3; *oraño* 1, 3, 2.

OROITU (a.) ‘gogoratu’. *oroitu* 3, 2, 4.

ORTOTS (i.) ‘ostots, trumoi’. *ortots* 2, 1, 2: lehenbizi «ostots»; *ortotsac* 2, 1, 2: lehenbizi «ostotsac» ematen du.

M

MAESTRO (i.) ‘maisu’. *Maestro* 4, 2, 2.

MANATU (a.) ‘agindu’. *manatu* 1, 4, 1.

MARIÑEL (i.) ‘itsasgizon’. *mariñelaren* 3, 2, 1.

MEREGI / -JI / -SI / -XI (a.) ‘merezi, zorizan’. *mereguico* (sic -gui-) 2, 5, 3: gero «meresico» egina; *meregizen* 1, 6, 2; *merexizen* 1, 6, 2.

MEREXIMENTU (i.) ‘meritu, merezi’. *mereximentu* 2, 2, 2; *mereximentuac* 2, 2, 1.

MERKE (adj.) ‘diru gutxitan’. *merque* 4, 1, 2.

MERTXEDE / -XEDE / -ZEDE (i.) ‘mesede, fabore’. *merchede* 2, 5, 3; *merxeude* 2, 6, 3; -x-ren gainean lerro artean -c- ipini du, -x- ezabatu gabe.

MI (i.) ‘mihi, mingain’. *mia* 3, 3, 1.

MINTASUN (i.) ‘min, garraztasun’. ceiñ aundiak den zure *mintasuna!* 3, 5, 2.

MINZATU (a.) ‘hitz egin’. *minzatu* albada-diquete 3, 6, 1. Gero «minza albaleizque» egin du.

MOBITU (a.) ‘mugitu, higitu’. *mobizeco* 4, 5, 2.

P

PAUSU (i.) ‘atsedenaldi; oinkada’. atrazendu... vere *pausutic* 2, 1, 1; *pausu* guti 4, 5, 3.

PISKA (i.) ‘pixka, pittin’. *piscabat* 3, 1, 3.

PISOIAL (i.) ‘pix-oihal, haur-oihal’. *pisoya-larequi* 3, 2, 1.

PODORE (i.) ‘indar, birtute’. *podorea* 1, 6, 3.

PREDIKAZALE (i.) ‘predikari’. *predicazalec* 3, 5, 1.

S

SANDU (adj.) ‘saindu, santu’. Moises *sanduac* 1, 4, 1.

SOÑEKO (i.) ‘soineko, jantzi’. *soñecoac* 2, 5, 2.

SOR (adj.) ‘gor, entzungor’. *sorra* 2, 6, 2.

SUGAR (i.) ‘gar’. infernuco *sugarretara* 1, 3, 1.

TX

TXAKUR (i.) ‘zakur’. *chacurrari* 4, 5, 1.

TXERRI (i.) ‘zerri’. *cherria* 4, 4, 3.

TXIKI / TXIPI (adj.) ‘txiker, xume’. *chiqui* 2, 4, 1; *chipi chiquiena* 4, 4, 2.

TXIMISTA (i.) ‘inaztura, ihortziri’. *chimista* aundi 2, 1, 2.

TXORI (i.) ‘passer’ lat. *choriec* 3, 1, 3.

TXOSTATU / TXOSTETA (a.; i.) ‘jolastu, dostatu, olgatu; jostaketa, dosteta, olgeta’. *chostazera* emacumequi 3, 2, 2; *chostetan* 3, 6, 2.

TXURI / TXURITASUN (adj.; i.) ‘zuri; zuritasun’. *churiac* 3, 1, 1; *churitasun* 3, 1, 1.

U

UDABERRI (i.) ‘udalehen’. *vdaberrin* 3, 1, 3.

NAITU (a.) ‘nahi izan, desiratu’. *naitua* 4, 3, 1; gogotic *naitua* 2, 3, 2: gero *deseaturic* egina.

NEGAR (i.) ‘deitore, auhen’. *negar* eguiteco 1, 6, 3.

NESKATXA (i.) ‘neska’. *mutil* edo *nescachabat* 2, 3, 2.

NON / NONNNAI (adj.) ‘ubi’ lat. / ‘edonon’. *non* 1, 5, 3; *nonnnai* 4, 2, 2.

O

OBI (i.) ‘hobi, hilobi’. *obian* 3, 3, 2.

OBREN (adj.) ‘hoberen, onen’. *obrena* 1, 6, 1.

OIAN (i.) ‘mendi’. Taboresco *oianin* 3, 1, 1; *oian artan* 3, 1, 1.

ONAT (ad.) ‘honera’. Ator *onat* 4, 1, 2.

- UGALDE (i.) ‘ibai’. *vgalde* 3, 1, 2.
 UGEMARRÁ (i.) ‘sirena, itsas-lamia’. *vgue-marraren* 3, 2, 1. Hitz hau ezabatu gabe, beraren gainean lerro artean *srenaren ipini* du.
 URKA / -BE (i.) ‘urkamendi’. *ilze... vrcan* 2, 5, 2. Gero *vrcabeen* egina.
 URRATU (a.) ‘zarratatu; desegin’. *vrraturic sangriarequi* 3, 3, 1; *vrraza* 3, 5, 2.
 URRUNDE / URRUNDETU (i.; a.) Gazt. ‘ausencia; ausentarse’. *vrrundea*, edo *ausenciarquin* 1, 1, 2; *vrrundetu* 1, 1, 2.
 USIATU (a.) ‘uxatu, haizatu’. *vsyazendu* 1, 3, 1.

Z

- ZALDI (i.) Lat. ‘equus’. *zaldi* 2, 3, 2.
 ZATIKATU (a.) ‘puskatu’. *zaticazacie* 2, 4, 1.
 ZEAGIGURTE (i.) Lat. ‘idolatria’. *ceagigurteco*, edo *idolatriasco* 1, 3, 2.
 ZEKORRA (i.) ‘idisko’. *cecorrabat* 1, 3, 2.
 ZILLAR (i.) ‘zilar, urezuri’. *zillarra* 4, 2, 1.

ADIZKITEGIA

A

- AIZ ‘haiz’. *aizenean* 1, 3, 1.
 ATOR ‘hator’. *Ator* 4, 1, 2.
 ATOZ ‘zatoz’. *atoz* 1, 5, 2.
 ATOZTE ‘zatozte’. *atozte* 3, 6, 3.

B

- BALEDI ‘baledi’. *baledi* 2, 2, 1.
 BALEUKA ‘baleuka’. *baleuca* 2, 5, 2.
 BALEZ ‘baleza’. considerabalez 4, 4, 1.
 BALEZA ‘baleza’. *icusi baleza* 2, 1, 3.
 BALEZO ‘baliezaio’. *lizaque...* eman *balezo* 2, 4, 1.
 BALU ‘balu’. *izaten balu* 2, 5, 2. Gero *balenca* egina, *izaten ezabaturik*.
 BALUKE ‘balu’. *izanenlizaque...* eman *baluque* 2, 4, 1. Gero *balezo* egina.
 BEZ ‘beza’. *icusbz* 2, 2, 1. Subjetua *berorrrek* da.
 BEZA ‘beza’. *icusbza* 2, 2, 2. Subjetua *berorrrek* da.
 BEZAITE ‘zaitezte’. etorribezaite bida eta *essanbezacie* 3, 6, 3. Gero *atozte* egin du, etorribezaite ezabaturik.

- BEZATE ‘bezate’. *icusi bezate* (beroeic) 4, 2, 1.
 BEZAZIE ‘ezazue’. *atozte...* eta *essanbezacie* 3, 6, 3. Lehenbizi *essanzacie* idatzu du eta gero *-be-* sartu.

D

- DA ‘da’. *da* 1, 1, 1; au ala *delaric* 3, 5, 1.
 DABIL ‘dabil’. *dabil* 1, 2, 3.
 DADIKETE ‘daitezke’ (?). minzatu *albadadiquete...* esanenluquete 3, 6, 1. Gero «minza albaleizque...» bilakatua.
 DAGO ‘dago’. *dagon* 1, 6, 1; *eztagola* 1, 1, 3.
 DAIEN ‘dadin’. *ildaien* 2, 2, 1.
 DAIKE ‘daiteke’. *ezpadaique* 3, 6, 1; noiz *eztaiquen* 2, 6, 2.
 DAION ‘dagion’. provecho on *daiola* 1, 5, 3.
 DAKI ‘daki’. *eztaqui* 3, 2, 3.
 DAKIGU ‘dakigu’. *eztaquigu* 4, 5, 3.
 DAKIK ‘dakik’. *badaquic* 4, 1, 2.
 DAKION ‘dakion’. Jangoicoari nai *eztaquia* 4, 3, 2.
 DAKIT ‘dakit’. *badaquit* 2, 2, 1.
 DAKITE ‘dakite’. *badaquite* 3, 1, 2.
 DAKIZIE ‘dakizue’. *badaquicie* 2, 1, 1.
 DAKIZU ‘dakizu’. *badaquizu* 1, 5, 2.
 DAUDE ‘daude’. *daude* 3, 2, 2.
 DAUKA ‘dauka’. *eztaucala* 2, 1, 1.
 DAUKAGU ‘daukagu’. *daucagu* 2, 1, 2.
 DAUKATE ‘daukate’. *daucate* 4, 4, 2.
 DAUKAZU ‘daukazu’. *daucazu* 3, 5, 2.
 DAUZKA ‘dauzka’. *dauzca* 3, 6, 3.
 DAUZKI ‘dauzka’. *dauzqui* 1, 5, 1.
 DAUZKITE ‘dauzkate’. *daucquite* (sic -c-) 3, 4, 2. Ik. 3. testuko 38. oharra.
 DAUZKIZU ‘dauzkazu’. *dauzquizu* 1, 6, 3.
 DEZAGUN ‘dezagun’. *dezagun* 2, 6, 3.
 DEZAIEN ‘dadin’. naiduzu *sardezaiela* Diabrua zure ariman 1, 3, 1.
 DEZAKE ‘dezake’. *eztezaquela* 2, 3, 2.
 DEZAKEGU ‘dezakegu’. *eztezaquegun* 1, 4, 2.
 DEZAN ‘dezan’. *vzidezala* 1, 3, 2; *gastigadezala* 1, 3, 2.
 1 DEZATEN ‘dezaten’. *icasidezatela* 4, 1, 1.
 2 DEZATEN ‘ditzaten’. *autsac egundezate-la* 1, 4, 1. Ik. 1. testuko 45. oharra.
 DEZAZKIGUN ‘ditzagun’. considerade-zazquigula 3, 5, 1. Gero «consideraguen-dezquielo» egina. Gramatikari begiratzen badiogu, beharbada «dezagun» itzuli behar genuke.
 DIDA ‘dit’. *ematendida* 1, 6, 2; 2, 2, 2.
 DIDATE ‘didate’. *seguizendidatenac* 1, 2, 2.
 DIDAZU ‘didazu’. *zuc vztenbadidazu* 1, 6, 2. Espero dena *nauzu* da.
 1 DIGU ‘digu’. *digu* 1, 3, 1; *digu laric* 1, 1, 3.
 2 DIGU ‘gaitu’. *vztenbadigu* 1, 1, 3.
 1 DIGUTE ‘digute’. *digute* 1, 1, 2.
 2 DIGUTE ‘gaituzte’. *librazendigute* 1, 3, 2.

DIO 'dio'. esatendio 2, 2, 1.
 DIOGU 'diogu'. diogu 2, 5, 3; ofendizenean 1, 1, 1.
 DIOT 'diot'. escazendiot 1, 6, 3.
 1 DIOTE 'diote'. quenducodiote 1, 2, 2.
 2 DIOTE 'dizkiote'. ematendiote veren arimac Diabruari 4, 4, 1.
 DIOTET 'diet'. escazendiotet 4, 1, 1. *Dicit / dizuet-en ordez erabilia.*
 DIOZAGUN 'diezaigun'. esandiozagun 1, 6, 2.
 DIRE 'dira'. dire 1, 1, 3.
 DITU 'ditu'. izanendituu 1, 4, 2; erregazen ditinuela 3, 1, 3; ik. 3. testuko 13. oharra.
 DITIUT 'ditut'. meregizen ditindala 1, 6, 2.
 DITTUT 'ditut'. dittut 4, 1, 1. Lehenbizi *dut idatzi du eta gero aldatu.*
 DITU 'ditu'. ditu 1, 2, 3; dituen 1, 6, 2.
 DITUGU 'ditugu'. ditugu 3, 4, 2.
 DITUSTE 'dituzte'. dituste 2, 2, 2.
 DITUT 'ditut'. ditu 2, 4, 2.
 DITUZIE 'dituzue'. ditucie 4, 3, 2.
 DITUZU 'dituzu'. dituzu 2, 5, 1.
 DITUZUE 'dituzue'. eguiten dituzuen 4, 4, 1.
 DIZIET 'dizuet'. ematendiciet 4, 3, 2.
 DIZKIDA 'dizkit'. quenducodizquida 1, 6, 2.
 DIZKIOTE 'dizkiote'. dizquiota 1, 1, 2.
 DIZKIOZU 'dizkiozu'. dizquiozun 1, 4, 3.
 DIZU 'dizu'. dizu 3, 4, 3.
 DIZUT 'dizut'. dizut 4, 1, 1.
 1 DU 'du'. baitu 2, 2, 2; duela 1, 1, 2; du 1, 1, 1.
 2 DU 'dio'. vztendu... vecatariari 1, 1, 2.
 DUGU 'dugu'. dugu 1, 1, 1.
 DUK 'duk'. emanbiarduc 4, 1, 2; badaquiccer eguiten ducan? 4, 1, 2.
 DUT 'dut'. dut 1, 3, 2; dudan 2, 2, 2.
 DUTE 'dute'. dute 1, 1, 3.
 DUZIE 'duzue'. nai ducie 1, 4, 1.
 DUZU 'duzu'. duzu 1, 3, 1.

G

GAIZAZUN 'gaitzazun'. ezcaizazula vzi 1, 6, 3.
 GAIZEN 'gaitezzen'. izuligaizen 2, 3, 1.
 GARA 'gara'. gara 2, 2, 2.
 GAUDE 'gaude'. gaude 2, 1, 2.
 GENDEZKIEN 'genitzan'. consideraguendezquiela 3, 5, 1. Ik. DEZAKIGUN.
 GENGOZAN 'geunden'. guengozan 2, 5, 3: gero geunden egina. Ik. 2. testuko 59. oharra.
 GEUNDEN 'geunden'. gueunden 2, 5, 3. Ik. GENGOZAN.
 GUAZEN 'goazen'. guazen 1, 3, 2; juazen (sic j-) 1, 6, 2.

L

LEIZKE 'litezke'. minza albaleizque (esanenluquete) 3, 6, 1.
 LIOKE 'lioque'. lioque 2, 5, 2; lioquena 2, 3, 1.

LIZAKE 'litzateke'. izanenlizaque... emanbalezo 2, 4, 1.
 LUKE 'luke'. esanen luque 1, 3, 2.
 LUKETE 'lukete'. esanenluquete 3, 6, 1. Ik. LEIZKE.

N-T

NAGO 'nago'. nagon 2, 2, 1.
 NAIZ 'naiz'. illen naiz 1, 6, 1.
 NAZAZU 'nazazu'. atranazazu 2, 2, 1.
 NUE 'nuen'. nue 4, 6, 3.
 TU 'tutu'. estimazeneztuenac 4, 1, 2.
 TUSTE 'dituzte'. tuste 2, 2, 3.

Z

ZAGUN 'dezagun'. considerazagun 3, 2, 2; izulzagun 2, 3, 1: gero ezabatu eta «izuligaizen» (sic izuli-) egina; icusagun 1, 2, 3.
 ZAIDA 'zait'. penazenzaida 4, 6, 3.
 ZAIGU 'zaigu'. zaigu 4, 4, 1.
 1 ZAIO 'zaio'. idurizao 3, 2, 3.
 2 ZAIO 'zitzao' (sic). eramanciote... eta atrazaio 1, 6, 1; guertatuziona 1, 3, 2.
 ZAIOTE 'zaiet'. idurizaiote 4, 3, 2.
 ZAITUT 'zaitut'. ez zaitut 2, 3, 1.
 ZAIZKIGU 'zaizkigu'. barcazenzaizquigu 1, 6, 1.
 ZAIZUE 'zaizue'. guertazenzaizuela 4, 6, 1: gero «guerta daquizun» (sic -zun) egina.
 ZAKIZU 'itzazu'. bialzaquizu 2, 5, 1: lehenbizi «bialzazu». Ik. ZAZKIZU.
 ZARA 'zara'. zara 2, 6, 3.
 ZARATE 'zarete'. zarate 3, 6, 3.
 ZAZIE 'ezazie'. arzacie 1, 4, 1; parazazie 1, 4, 1; ilzazie 2, 3, 1; quenzazie 2, 3, 1; zaticazacie 2, 4, 1; icusacie 4, 1, 1; aizacie 3, 1, 2; iminzazie 4, 3, 2.
 ZAZKIDAZU 'iezazkidazu'. izulizazquida-zu 1, 6, 3: lehenbizi zazquizu.
 ZAZKIZIE 'itzazue'. pisazazquzie 4, 3, 2.
 ZAZKIZU 'itzazu'. barcazazquizu 2, 5, 2; quenzazquizu... eta arzaquizu (sic -za-) eneac 2, 5, 2. Ik. 2. testuko 51. oharra.
 ZAZU 'ezazu'. iduquizazu 2, 2, 1.
 ZE 'zen'. joanze 1, 1, 1; Etorze 2, 1, 2.
 ZEDIEN 'zedin'. ilzedien 2, 1, 1.
 ZEGON 'zegoen'. zegon 2, 1, 2: perpaus nagusian dago.
 ZEIEN 'zedin'. iganzeiela 4, 5, 2.
 ZENDUE (N) 'zenuen'. echiten zenduelaric 4, 5, 2: gero echiten utzi eta bestea kendu.
 ZEDE (N) 'zeuden'. zeudelaric 3, 1, 1.
 ZEUKA 'zeukan'. zeuka 3, 5, 2.
 ZEZATEN 'zezaten'. parazezatela 2, 3, 1.
 1 ZIO/N 'zion'. esancio 1, 6, 1; esatencion 1, 1, 3. Denak perpaus nagusietan daude.
 2 ZIO/N 'zien'. esancio 1, 5, 3; esanzion 1, 5, 3. Perpaus nagusietan.
 1 ZIOTE 'zioten'. castigatuciote 1, 1, 1; eramanciote garzelera 1, 6, 1: zuten espero da hemen.

- 2 ZIOTE ‘zien’. *esanciote* 1, 4, 1; *manatuciote* 2, 3, 1; *manatucioten* 1, 4, 1: perpaus nagusian azkeneko hau ere.
- ZIRE ‘ziren’. *zire* 3, 1, 1.
- ZITIUE(N) ‘zituen’. *eguitencitiuen* 1, 5, 2.
- ZITUSTE/N ‘zitzuten’. *zitzuste* 4, 3, 2; *zitus-ten* 1, 1, 1.
- ZIZAIO ‘zitzaison’. *cizaio* 4, 2, 1.
- ZIZAIZKIO (N) ‘zitzaizkion’. *zizaizquiola* 4, 5, 2.
- ZIZKIO ‘zizkion’. *cizquio* 4, 1, 2.
- 1 ZIZKIOTE ‘zizkioten’. *ematenzizquiote* 4, 6, 2. Ik. 4. testuko 42. oharra.
- 2 ZIZKIOTE ‘zizkien’. *emancizquiote* 1, 4, 1.
- ZUAZ ‘zoaz’. *zuaz* 2, 3, 1.
- ZUE/N ‘zuen’. *zue* 1, 4, 1; *artuzuen* 2, 1, 1: bukaerako -n gero erantsia.
- ZUKETE (N) ‘zezaketen, zuketen’ (?). orduan izanendute sentimendu aundia, consideraren cen trabajo gutirequin irabazi-zuqueten cerua 3, 4, 1. Ik. Elkanoko Lizarraga. *Ongui iltzen...*, 314. or. zuke.
- ZUTE/N ‘zuten’. *zute* 4, 3, 2; *zuten* 1, 3, 2.

LABURPENA

Lau euskal testu ematen ditugu hemen. Aldizkari honetan argitaratu genituen beste hamasei testurekin eta oraindik argitaratu gabe dauden beste askorekin bilduma bat osatzen dute. Goñerrin dagoen Munarritzen izan ziren aurkituak denak orain dela hirurogeita hamar bat urte eta bilduma horretan 5. saila betetzen dute. Gure ustez, XVIII. mendekoak dira.

Saiatzen gara azaltzen nor izan zen horien egilea, eta non eta noiz izan ziren eginak. Agertzen ditugu baita ere hizkuntzari buruzko zeinbat puntu, erakusten dela horrela Nafarroako euskaran daudela idatzia.

RESUMEN

Damos a conocer cuatro textos inéditos en lengua vasca. Forman ellos parte de una colección de textos, dieciséis de los cuales han aparecido ya en esta revista. Fueron hallados en Munárriz, pueblo del valle navarro de Goñi y merindad de Estella. Constituyen el grupo quinto de la colección y creemos que fueron compuestos en el siglo XVIII.

Tratamos en una breve introducción de averiguar el autor de los textos, y el lugar, la fecha y el dialecto de los mismos. Están redactados en vascuence navarro.

RESUME

Nous présentons quatre textes inédits en langue basque. Ils appartiennent à une collection de textes, dont 16 ont déjà été publiés dans cette revue. Ils ont été trouvés à Munarriz, village de la vallée navarraise de Goñi, du district d'Estella. Ils correspondent au cinquième groupe de la collection et nous pensons qu'ils ont été écrits au XVIII^e siècle.

Nous essayons, dans une brève introduction, d'établir qui est l'auteur des textes, ainsi que la date et le lieu de la rédaction et le dialecte auquel ils correspondent. Ils sont écrits en basque navarrais.

SUMMARY

We publish four documents in the Basque language which were unedited so far. They belong to a collection composed of many texts written and used in the 18th and 19th centuries. The collection was found about 70 years ago in Munarriz, a village in the High-Navarrese valley called Goñerria (Goñi). The texts make up the 5th set of the collection.

In a brief introduction we attempt to know the author who wrote them, and the place, the date and the dialect they are composed in.

